



ARGIA

IRAILAREN 11KO ATENTATUEK 20 URTE

Munduko hegemoniaren aldaketa hasi da

32-35. orriak

#2.744 | 2021 / 09 / 05 | 3,90 €



**Iraultza Txikien Akanpada:
kapitalari sustraiak
ebakiz, lotu bizitzari**

22 | POLITIKA



**“Euskara elkarteek
aurrera egiteko
ilusioa badaukate”**

36 | ITXERRA RODRIGUEZ



**Jenny Holzerren
lan berria
Guggenheimen**

44 | KULTURA


INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDA
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

LASARTE-ORIA

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
JIM SULLEY / EFE

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | ARKAITZ ZARRAGA AZUMENDI
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: JULEN IZTUETA
- 54 | BERANDUEGI



22 | IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

Arteako (Bizkaia) Basoa etxearen bueltan egin dute aurten Iraultza Txikien Akanpada. Herri mugimenduen topalekua izan dena bertatik bertara jarraitu du Zigor Olabarria Oleagak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL | AFGANISTAN

Nazioarteko estrategia finkatzeko unean talibanen basakeriak bezainbat eragin izan dezake hango lurpeko litioak

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | JUAN MARI ZULAIKA

“Argaia gotzainak gure torturen argazkiak 'galdu' zituen”

Miel A. Elustondo

28 | NAZIOARTEA

Europako ultraeskuinaren estrategia aldaketaren nondik norakoak

Xuban Zubiria

32 | NAZIOARTEA | IRAILAREN 11 KO ATENTATUAK

Shocketik porrotera 20 urte ondoren

Asier Blas

36 | EUSKARA | TXERRA RODRIGUEZ

“Bi aukera daude: jarraitu pentsatzen erdigunean gaudela edo ertzetakoekin batera lan egin”

Onintza Irureta Azkune

44 | KULTURA

Errealitate areagotua eta errealitate konkretua Guggenheimen

Peru Iparragirre

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lameza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK

iametza
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ihes egiteko baimena

Tuterako Silvia Arrastia erlojuaren aurkako borroka larrian da Kabulen bizi diren koinata eta iloba gazteak Afganistandik ateratzeko. Hainbat egun daramatzate hiriko aireportuan, talibanen menpeko sorterritik joateko beharrezko baimenaren zain. Aziz senarraren familia da, duela urte batzuk Nafarroan bizi den gazte afganiarrarena. Irudian: Silvia eta Aziz Iruñeko Askatasunaren Plazan.



Erresistentzia nudista

GUILLE LARIOS / LA DIRECTA

Zalaparta eragin du uda honetan Hendaian hartutako erabakiak: bertako hondartzan nudismoa egitea debekatu dute, eremu batean praktika onartua zen arren aspalditik. Garai bertsuari iritsi zaigu *La Directa*ko albiste hau: eremu nudistetan bainujantzia daramaten gorakada, nudismoa debekatzen duten udal-ordenantzak, emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta seinalizazio eza gisako erronkei aurre egiteko ekintza-plana lantzen ari da Kataluniako Naturismo Kluba.

"Nudismoa osasun egoera delikatuango dago. Nudisten ehunekoak ez da hazi azken urteotan, eta asko dira nudisten leku tradizioaletara joateari utzi diotenak, gaur egun bainujantzia daramaten jendez lepo daudelako. Horrez gain, badirudi, irekitzen beharrean, gizartea ixten eta atzera egiten ari dela, gorputzei dagokionean kontserbadoreagoa dela, eta biluztasuna ez dela onartzen". Kataluniako Naturismo Klubeko (CCN) lehendakari Segimon Roviraren gogoetak dira. 500 bazkide baino gehiago dituen irabazi asmorik gabeko elkarte hau nudismoa praktikatzeko dutenen eskubideen alde borrokatzen da Katalunian 1977az geroztik.

Ez dira nudismoarentzat garairik onenak. Horregatik ari da elkarte hau ekintza-plan nudista bat garatzen. Bertan proposatuko dituzte hainbat frontetatik kezkgarritzat jotzen duten dinamika iraultzeko ekintza eta ildo estrategikoak.

PROPOSAMEN SORTA

"Mundu guztiak nahi duen bezala bainatu eta eguzkia edonon hartu izatea litzateke egokiena: biluzik, *toplessean* edo bainujantzi osoarekin. Baina hori, gaur-gaurkoz, gizartearen zati batek ez luke onartuko. Azken urteotan, tradizio nudista duten hondartza batzuetan, familia osoak edo gazte-talde ugari ikusten dira, guztiak bainujantzia soinean. Horrek nudista asko deserroso sentiarazten du. Nudismoa espazio publiko guztietan legala dela eta ez direla hondartza nudistak seinalizatu behar pentsatzea utopia da, eta gaur egun ez da bideragarria". Hala, proposamenetako bat da Kataluniako

tradizio nudistako hondartzak seinalizatzeko kartel generikoa sortzea, pikto-grama edo logoekin, hainbat hizkuntzatan azalpenak emanez. "Seinalizazioa garrantzitsua da nudistei segurtasuna transmititzeko eta gainerako erabiltzaileei hondartzaren tradizio nudistaren berri emateko. Kartelek ez dute ziurtatzen nudismoa mantentzea, informazio ekintze-kin osatu behar dira", dio CCNk.

Beste proposamen bat da hondartza nudistetan koordinatuko den boluntario sarea osatzea. Beren egiteko hondartza dinamizatzea izango da, urteko garbiketareguna edo naturismoaren eguna antolatzea, baita hondartzaren kontserbazioa eta seinalizazioa zaintzea ere, datuak jaso eta edozein gorabeheraren berri ematea. Azkenik, eta etorkizuneko erronka moduan, 2021 honetan Nudismoari buruzko Kongresua egin nahi dute, baita sare sozial nudista bat osatu ere, informazioa partekatzeko eta nudisten arteko eztabaidaguna izateko.

JAZARPENA ETA BEGILUZEAK

CCNk administrazioari zuzendutako neurriak ere proposatu ditu, nudismo-rako eskubidea aitortzeko politikak eta keinuak egin ditzan. "Nudismoa debekatzen duten ordenantzak atzera bota behar dira, gobernu aurrerakoia dituzten udalekin harremanetan jarriz eta debekua akatsaz jabetu daitezenean, Katalunian naturismo-nudismoa defendatu eta sustatu behar da". 2018ko Kataluniako sindikoaren ebazpenari egiten zaio erreferentzia. Ebazpen hori Kataluniako Naturismo Klubak eginiko kexei emandako erantzuna izan zen eta bertan

sindikoak sei gomendio planteatu zituen udalerrientzat, helburu jarrita udalerriguztietan nudismo-rako eskubidea eta emakumeek lasaitasunez egiteko aukera izan zezaten, begiluzeeen presentziarik gabe. Emakumeen aurkako sexu-jazarpenari nola egin aurre, horixe da ku-deatzeko gairik zailenetakoa. Roviraren ustez, ez dago irtenbide argirik. "Proposatzen dugu hondartzetako ohiko erabiltzaileak izatea akosatzailerekin hitz egin eta joatera gonbidatuko dutenak, eta uko eginez gero, polizia deitzea".

AHALDUNTZE NUDISTA

Planaren zati handi bat nudismoa gizartera zabaltzeko ekintzek hartzen dute. "Nudismoa normalizatzeko kanpainak egin behar dira, nudismoa zer den ezagutaraziz eta topikoak gezurtatuz. Nudismoak iritsi behar du benetan ezagutzen ez duen gizartearen zati handi horrengana". Hala ere, egungo erabiltzaileen ahalduntzea ez da ahaztu behar. "Nudistei beren eskubideez hobeto informatu behar zaie. Espazio publiko guztietan nudismoa egiteko eskubidea dugu, nahiz eta seinalizatuta ez egon (hori debekatzen duten ordenantzak dauden lekuetan salbu)". Barnealdeko nudismoa sustatzeko apustua ere egiten da, mendian eta ibaietan, bai bainatzeko lekuetan, bai txango eta mendi-ibilaldietan praktikatzeko.

Plan hau, azken batean, erresistentziarako deia da, beren gorputza arropa eta osagarririk gabe eraman nahi dutenentzat, tradizio nudistako hondartzak defendatzen dituztenentzat, edo leku berriak eskatzen dituztenentzat. ●



ASSOCIACIÓ CLUB CATALÀ DE NATURISME

Munduan parte hartu



ARITZ GALARRAGA

Pentsatzen dut garai batean nik ere esperoko nuela, Rimbaud poetak bezala, dena bizi, dena esan, dena asmatu, lehen buruan dena suntsitzea. Proiektu bat eraman: mundua hitzen bidez eraldatzea. Hamabost eta hemeretzi urteen artean esan zuen esan beharreko guztia. Hitzak behingoagatik jarri gabe klasikoki pentsamendu jakin baten menera. Hunkigarria da obra hain urriak, *Une saison en enfer* eta *Illuminations* liburuek, abangoardien zikloa ireki izana. Eta gero isiltasuna. Eta bidaiak, Europa, Afrika, 1881ko letra batean: “zaldi bat erosiko dut eta banoa”. Jakinik, sendatu ustean, bizitzeko ezintasuna alde batetik bestera eramatea dela bidaiatzea. Azkenik, hogeita hamazazpi urterekin, hezurretako minbiziaz, hiltzeko Marseillako ohe batean.

Pentsatzen dut garai batean nik ere esperoko nuela hori guztia, baina orain espero ditut, Rimbaud poetak bezala halaber, eguzki bainuak, paseo infinituak, atsedena, bidaiak, abenturak, bohemiokeriak finean. Askotarikoa baita bizitza, kontraesanez betea, anbigua. Rimbauden gisara, ezin da makurtu arketipo bakar batera, orain santu, orain zikin, tarteka dena batera. Adibidez uda, abuztua, uda ofiziala, zeina pasa dugun zalapartaren erdian batzuetan, bakarrago, Sylvain Tesson eta beste idazle batzuen konpainian gehienetan. Eta tentazioa handia da, beste poeta batek, Baudelairek zioen hura jarraitzeko: “berdin dio non, mundutik kanpo”. Baina iraila etorri duk hitaz galdezka, munduan parte hartu behar da, nahiz izan gogoz bestera, hitzaren baitako arma pobreekin besterik ez bada. Luzaz pausatzen denak denik eta gaitzik handiena arriskatzten baitu: bere burua aurrez aurre begiratzea. Bizitzari bai esan, beraz, udaz kanpoko eguzkiari, guztiaz gozatu, hariari heldu, Zaratustra izan. “Oinezko bat naiz, ez besterik”, zioen Rimbaud poetak. Ibiltzeko gogoz dabilena, hori bai. ●

ESPEKULAZIOA EREIN...



...MOBILIZAZIOA BILDU!



ADUR

“POSIBLE DA SISTEMA BLOKATZEA”

ENEKO GORRI, ARBONAKO OKUPAZIOA SOSTENGATZEN DUEN KIDEETAKO BAT

Argi mintzatu da Gorri: “Inertiaren kontra beti bada herriaren mobilizazioa, posible da sistema blokatzea”. Orain bi hilabete okupatu zuten Arbonako hamabost hektareako eremua, eremu horren salmentaren prezio ikaragarria (espekulazioa) salatzeko eta lurrak laborarientzat izaten jarraitzeko. ELB eta Lurzaindia dira okupazioaren bultzatzaile, baina beti herritarren sostenguarekin. Berriki, herritar talde dinamika bat abiatu da paraleloan, logistika, animazioa eta egutegiaren kudeaketan laguntzeko, eta kolektibo horretako kide da Eneko Gorri.

EUSKAL IRRATIAK (2021/08/27)



ANALISIA



Istiluen aurkako polizia Donostiako kaleetan.

Istiluak sintoma gisa

PERU IPARRAGIRRE

Kargak eta atxilotuak berriz ere ordu txikietan Donostiako Parte Zaharreen; denborarekin eta errepikapenarekin pixkanaka ohitzen ari gara irudietara, gertakarietara. Festetako datak igarota ere berdin jarraitzen du giroak, eta atxilotuen kopuruak handitzen jarraitzen du. Zinismoa orokortua izan da azken Aste Ez-nagusietako eta oro har uda amaierako ez-festetako gertakarien bueltan ere. Informazio iturrien jatorriak ere izugarri baldintzatu du gertatutakoaren inguruko iritziz publikoa: zaila da iturri ofizialei eta ezartzen duten diskurtsoari iskin egitea, batez ere prentsa-oharretatik elikatzen den hedabideen dinamikan murgilduta. Horri, gainera, analisirako marko ideologikoa ere gehitu behar zaio, partzialtasuna ezkututzen duen "sen onaren" ideologia dominantea eta dituen mugak. Istiluak aztertu beharreko fenomenoak dira, baina istiluek oinarrian dituzten baldintzak aztertu gabe azaleko sintometan geratzen da analisisa.

Faktore asko elkartzen dira eta zaila da hemen guztiak aipatzea, baina funtsean, oinarrian, sistema kapitalistak gaur egun inposatzen duen bizimoduaren auzia dagoela bistakoa da. Donostian, Iruñean, Bilbon gertatutakoa ez da apartekoa, antzeko gertakarien berri ematen ari dira Europako beste zenbait lekutan ere, eta Euskal Herrian hau gertatzea ez da "Mendebaldeko" ohituren zabalpenaren ondorioa, baizik eta krisi beteko harreman sozial kapitalisten eta sortzen duten kulturaren orokortzearen sintoma, eta ez da preseski fenomeno berria.

Istiluek forma konkretu bat hartzen dute: behin tabernei ezartzen zaien ordutegia pasatuta azaltzen da Polizia jendea oraindik pilatuta dagoen kaleetara, zeren jendea pilatuta egoten da tabernak zabalik daudenean ere, noski. Une horretatik aurrera istiluen aurkako Polizia ikusten duenak badaki zer datorren: istiluak. Auzia, berriz ere, ez da Poliziak bere funtzioa hobeto bete dezala, ez eta ezker instituzionalari eta balizko sen onari onargarriago zaion moduan bete dezala ere: hots, tabernak zabalik daudenean ere egurtu dezatela pilatuta dagoen jendea, edo mesedez eta faborez eta hitz goxoz bidal ditzatela kalean daudenak etxera. Zeren propaganda politikoa jartzen ari zirenetako batzuk ere hitz goxoz identifikatu zituzten, eta hitz berberekin jarri isunak. Azkar kamusten da analisisa sintomen kausetatik urrundu ahala. Auzia kulturala da, baina helburua ez litzateke bizimodu kapitalista lasai bat izan beharko –egungo egoerak erakusten duen kontraesana agerikoa da–, kapitalismoari antagoinikoa zaion bizimodua eraikitzea baizik. ●

Euskara hedatzeko leku berria Baionan

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Azken hiru urteetan aritu dira Biltxoko elkarteko kideak lokal bila Lapurdiko hiriburuan. Azkenean, aurkitu dute, eta besteak beste, euskarazko kultur eskaintza garatzea dute helburu.

Euskaraz eta euskara helburu gisa jarririk dabilten leku guti daude Baionan, urtez urte hainbat gune desagertu direlako. Hala eta guztiz ere, berri batzuk sortzen dira artetan eta hauen artean dugu Biltxoko elkarteak uztailaren 14an estreinatu zuen lokal berria. "Euskal kultura eta euskara hedatzeko ireki dugu Biltxoko gunea" azaldu dio Ibai Agirrebarrenak Euskal Irratiak komunikabideari.

BELAUNALDI ARTEKO TRUKAKETA

Baiona Handian, Agustindarren karrikan dagoen lokal bat eskuratu dute 120 herritarren artean bideratu kideak sistema bati esker –itxarote zerranda ere dute, elkartearen parte izan nahi lukeen jende berriarentzat–. Zehaztu dutenez, belaunaldien arteko trukaketa interesgarria ere bada elkarteak, 20 urtetik 70 urtera arteko jendea batzea lortu duelako.

"IV. mendeko paretan artean gara eta hori interesgarria zaigu euskara eta historiaren arteko lotura egiteko", Pantxika Urruty elkarteko lehendakariaren hitzetan.

GUNE PRIBATUA, BAITA IREKIA ERE

Nahi izanez gero, kideak hitzordu pribatu ala gastronomiko bat antolatu dezake bertan. Baina horrez gain, ekitaldi irekiak eta kulturalak eskainiko ditu elkarteak. Irailetik aitzina plazaratuko dute agenda kulturala. Larunbata merkatu eguna izanki Baionan, astero 10:30etik aitzina irekiko dute, herritarrak euskaraz bideraturiko topagune berri bat ukatuko gisan. ●

Energia berriztagarrien zazpi proiektu berri Nafarroan

XABIER LETONA

Sustrai Erakuntza Fundazioak jakitera eman duenez, abuztuaren 1etik energia berriztagarriei lotutako gutxienez zazpi proiektu berri jarri dira jendaurrean Nafarroan, eta horietako batzuk bereziki eragin handikoak.

29 AEROSORGAILU

Sacyr enpresa taldeak Iruñerriko iparraldean hiru industrialde eoliko ditu proiektuan, Erro, Esteribar, Anue eta Olaibar haranetan. 25 kilometroko linea elektrikoa eta 200 metroko altuera duten 29 aerosorgailu aurreikusten dituzte. Hauek eraikitzeko behar diren azpiegitura erraldoien ondorioz, pagoei, haritzei eta pinuei eragiten dieten azalera natural garrantzitsuak suntsituko dira.

ESTELLERRIAN ERE BAI

Andia mendilerroaren magalean –Urbasa-Andia Parke Naturalean– haize-sorgailuak Lezaun eta Gesalaz haraneko udalerrietan kokatuko lirateke: 13 aerosorgailu, 180 metro altu bakoitza. Hemen ere beste 45 hektarea inguruko landaredia kaltetuko litzateke. "Ustez klima aldaketari aurre egiteko eraiki nahi diren proiektu horiek natura-ingurunean eragin oso larriak dituzte", salatu dute.



@MIKEL_BENGO

SEXU ERASOEK ETENIK EZ UDAN

PLENTZIA. Astekari hau idatzi aurreko azkena, Plentzian: 17 urteko getxoztarrak salatu du sexu erasoak jasan zuela pasa den larunbatetik iganderako gauean. Salaketa jarri zuen eta Ertzaintzak ikerketari ekin zion, ea talde bortxaketa izan zen (irudian, Plentzian eginiko elkarretaratzea). Aurreko astean, beste bi kasu lazgarri: emakume bati eta bere alabari eraso egin die gizon batek Gasteizen; etxetik ihes egin behar izan du emakumeak lau seme-alabekin. Bestetik, bi adingabe atxilotu zituzten, Basusarrin emakume adingabe bati eginiko sexu erasoarengatik.

PANDEMIA

%50

hazi da pandemiaren eraginez arreta psikologikoa jaso duten nerabeen kopurua. Elikadura-jokabideen nahasmenduak izan dira arta psikologikoa jasotzeko lehen arrazoia gazteen artean. Trauma osteko antsietate sintomak sufritzen dituzten gazteen kasuak ere hazi egin dira. Gazte atzeritarrei eta dibertsitate funtzionala dutenei eragin die bereziki pandemiak.



ESPLOTAZIOA. Enpresaburu bat atxilotu dute Bizkaian zortzi behargin esplotatzea egotzita. Ustez, Zamudioko Ajos y Cebollas del Txorierri enpresaren lantegian giltzapetuta zeuzkan, eta 26 orduz jarraian behartzen zituen lan egitera. Lau langile migratzaileak dira.



GASA. Gasteizen gasa esploratzeko helegiteari eutsi dio Eusko Jaurlaritzak. Armentia-2 putzuan gasa esploratzeari uko egingo ziola ofizialki iragarri eta bost hilabetera, Eusko Jaurlaritzak ez du atzera bota Gasteizko Udalaren erabakiaren aurkako helegitea.



BASOAK. Eukaliptotik haritzira, 2016tik Plentziako herri-lurrak berreskuratzeko eta biziberritzeko egin duten lana jaso dute **Isuskitzako Herri Lurrak** liburuan. Isuskitzako herri-lurren historia, bilakera, ingurumena eta balioa ere azaldu dute liburuan.

NAZIOARTEAREN ESTRATEGIA FINKATZEKO UNEAN TALIBANEN BASAKERIAK BEZAINBAT ERAGIN IZAN DEZAKE HANGO LURPEKO LITIOAK

Hogei urte pasa direla, berriz ere boterea hartu dute talibanek Afganistanen. Nazioarteko estatuek gobernu berri horri begira hartuko duten postura erabakitzeke orduan talibanen pentsamolde eta politika basatiek izanen dute eragina. Alta, beste behin ere lurpean dagoenak izanen du pisu. Mineralez eta metalez ikaragarri aberatsa da Afganistan, tartean litioz, trantsizio ekologikoa bideratzeko ezinbestekoa dugun minerala. Batek arras ongi daki hori eta kalkuluak horren arabera bideraturik ditu. Zeinek? Txinak.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Litioaren Saudi Arabia bihurtu daiteke Afganistan” irakurri zitekeen 2010eko AEBen Defentsa ministerioaren barne-dokumentu batean, garaian *The New York Times* komunikabideak argitara ekarri zuen horretan. Amerikar geologoak konturatu ziren litioz biziki aberatsak zirela Afganistango lurrak, haien kalkulu ofizialen arabera, 1.000 bilioi dolarreko balorea irudikatzeraino. Munduko erreserba inportanteenetarikoak ere dela entzun da azken egunetan –Australia, Txile edota Argentina bezala-. “Urre zuria” izenez ezaguna da mineral hau, eta duela bi hamarkada arte interes gutxi sortzen bazuen ere, 2000az geroztik erabat bestelakotu da honen garrantzia. Eskaera puztu egin da eta emendatuz doa egunez egun, urtero %20 handituz mundu mailako ekoizpena –2017an 43.000 tona ustiatu ziren, 2010ean 28.100 tona zirenean-. Arrazoia: teknologia berrientzat ezinbesteko osagaia da. Besteak beste, mugikorretan, ordenagailuetan, eolikoei eta eguzkiari esker ekoizturiko energia metatzeko guneetan zein auto elektrikoetan kausitzen dugun minerala da.

Hori horrela, gure kontsumo gosea asetzeko bidean, beharrezkoa zaigun urrea da, eta gainera, klima larrialdiari aurre egiteko bidean, “trantsizio” gisa aurkezturiko aldaketak gauzatzeko ezinbestekoa izanen dugu gerora ere. Demagun, *Green Deal* edo Itun Berdearen baitan, Europako Batzordeak era-

bakia du 2035ean debekatuko duela gasolinaren ala dieselaren bidez dabiltzan autoen salmenta. Hemendik hamalau urtera Europan matrikulaturiko auto berri guztiak elektrikoak izan behar dira. “Deskarbonizazioa lehentasun bihurtu da nazioarteko helburu klimatikoei erantzuteko, eta 2010etik geroztik energia berriztagarrietara bideratu inbertsioak azkarki emendatu dira (3.800 bilioi dolar inguru). 2020an, 500 mila milioi dolarretik gora bideratu ziren karbono-igorpen txikiko teknologien inbertsioetara (hidrogenoa, CO2 harrapaketa eta gordeketa, ibilgailu elektrifikatuak...); hots, hidrokarburoen bilketaren eta ustiapenaren sektorera baino gehiago”, irakurri daiteke *Métaux et terres rares: vers une pénurie source de tensions géopolitiques* (Metal eta lur arraroak: eskasia, tentsio geopolitikoaren iturri) artikuluan. Europar Batasunari dagokionez, litio beharra 60 aldiz biderkatuko da 2035rako.

Hots, garai batez petrolioa izan zena izanen da hemendik gutira litioa: gurean eta bere horretan aitzina egiteko ezinbestekoa dugun baliabidea; ustiapenak kalte ekologiko eta sozialak ondorioztatzen dituena; kantitate mugatuan dagoena eta nola ez, ondorio geopolitikoak eraginen dituena –ez da dudarik, Afganistani begira nazioarteko estatuek hartuko dituzten erabakietan mineral honek eragina ukanen duela-.

Gainera, uranioa, aluminioa, urrea, kobrea, kromitea, platinoa zein zilarra,

bestelako mineral eta metal anitzen kagunea da Afganistan: orotara 1,1 eta 1,4 milioi tona artean, diruz, ia 2.500 bilioi euroko aberastasuna. “Teknologia modernorako ezinbesteko osagaiak dira. Mugikorretan, telebistetan, motore hibridoetan, ordenagailuetan, laserretan zein baterietan, denetan daude”, *The Diplomat* komunikabidearen *Afghanistan’s mineral resources are a lost opportunity and a threat* (Parada galdua eta arriskua dira Afganistango baliabide mineralak) erreportajearen irakurri daitekeenez.

TXINA: TRANTSIZIOA ERABAKI GEOPOLITIKOEI TXERTATURIK

AEBek eta Erresuma Batuak abiatu Afganistanen inbasiotik hogei urte odoltsu pasa direla, talibanak berriz ere boterean dituzte Afganistanen eta ikusteke dago nazioarteko estatuek eta instituzioek zer nolako aitortza bideratuko dien talibanen gobernuari. Abuztuaren 15az geroztik, hots, Ashraf Ghani orduarako presidentearen ihesaz geroztik Txinak du argienik plazaratu talibanekin ere harremanak mantentzeko irekidura. Justuki krisi klimatikoari aurre egiteko estrategiari segi ari delako bere erabaki geopolitikoaren bideratzen –eta bistan da, horrek ekonomikoki ondorioztatuko dion aberastasanari so eginez-.

Noski, sinbolikoki eta politikoki pisu handia du Txinarentzat AEBen porrotaren sinbolo den Afganistanen sendoki kokatzeak. Noski, auzo dira, 76 kilome-



LURPEKO ABERASTASUNA

Mineralez eta metalez biziki aberatsa da Afganistango lurpea. Tartean daude deskarbonizazioa bideratzeko ezinbesteko izanen ditugun osagaiak.

troko muga dute bien artean eta Pekinnek harreman onak mantendu nahi ditu talibanekin, azken hauek iugur komunitatearekin harremanik ez garatzeko –Xinjiang eskualdeko musulmanak dira eta Pekinen partetik sekulako jazarpenak, diskriminazioak eta kontrolak pairatzen dabilta; gaurko egunean milioi bat iugur baino gehiago dira “berreziketa politikorako esparruetan” preso eta isolaturik-. Baina oroz gainera badaki Afganistango lurretan gordetako mineralak ezinbestekoak izanen dituela gero hurbil eta ertainean.

Teknologiaren eta trantsizioaren merkatuan Txinak du nagusitasuna, europarrok Pekini erabat dependente bihurtzeraino –Europako Batzordearen arabera, EBk burutu lur arraroen inportazioen %98 Txinatik dator-. Nagusitasun hori segurtatzeko ezinbes-

tekoak ditu mineral guneen kontrola edota jabetza. Kalkuluak eginak ditu Txinak: 2049rako munduko lehen indarra bihurtuko dela dio eta besteak beste, energia iturri berri hauek eduki izana du aberastasunaren oinarrian.

Horretara ailegatzeko *Belt and Road* edo Gerrikoa eta Errepidea egitasmo erraldoia aurkeztu zuen 2013an Xi Jinpingek, *Zetaren Bide Berria* izenez ezagun egindakoa eta Txina Afrika Ekialdeari eta Mediterraneoari lotzen dituena, Ekialde Hurbila eta Erdialdeko Asia trabeskaturuz. 125 estaturekin hitzarmenak izenpeturik ditu eta batzere ere azpiegiturretan (autobide, portu, tren bide zein gas eta olio bide) zentratutako 3.000 egitasmo ditu abiatuturik. Besteak beste, energia eta mineralak bideratzeko asmoz. Afganistanekin ere izenpetu zuen lehen protokoloa

2016an, hainbat hitzarmen mahai gaineratuz eta segurtasunaren baldintza bermatua bazaio, talibanekin ere bide beretik segituko duela pentsa daiteke.

Alta, mineralen ustiapena garatzeak ondorio ekologiko eta sozial dramati-koak lituzke jada kinka larrian diren afganiarrentzat. Aldi honetan ere mende-baldetarron interesen izenean, berdez pintaturiko gure kontsumo frenetikoan segitzeko gisan. Lehengaietan aditua den Guillaume Pitron kazetariak argiki dio: “Guk, mendealdeko herrialdeok, ez dugu nahitaz hartu nahi ‘meatzen zama’, eta uzten diegu ekoizpena beste herrialde batzuei, meatze bat beti delako zikina, minerala ateratzea eta fintzea ingurumen-kostu jasanezina delako. Mundu berdeagoa nahi dugu, baina ez dugu berdearekin lotutako kutsadura gurean nahi”. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com



Juan Mari Zulaika

ZAMORAKO PRESO OHI, MEMORIAREN ERAGILE



ARGAIA GOTZAINAK GURE TORTUREN ARGAZKIAK 'GALDU' ZITUEN



Urduria da Juan Mari Zulaika, eta urduri jardun du bizian. Fraide frantziskotar izana, apaiz langile, Zamorako preso, ETAko kide, auzo elkarteko partaide, militante eta ekintzaile... *Apaiz kartzela* film erakutsi berriak harekin hitz egiteko atea ireki digu.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Frantziskotarra izana zaitugu...

Nire bizitzako erabakia, hamar urte ere ez nituela hartu nuen! 1942an Zarautzen jaio eta Arantzazun nintzen hamar urte bete gabe ere. Toki ezezagunaren xarmak erakarrita, ziurrenik. Bestalde, hamar anai-arrebetan txikiena izanik eta bihurria, etxeko diziplina estutik ihes egitearren ere joango nintzen ni fraideetara. Gezurra badirudi ere, Arantzazun ia galdu egin nuen euskara, hain gutxi erabiltzen baitzen han. Horixe bera aitortu zuen Kepa Enbeitak. Euskara eta kulturaren hondamendia oso larria zen.

Nonbait ere, Erriberrin jabetu zinen politikaz...

Bai. Foruan eta Zarautzen ikasi eta

gero, Erriberrin ginen, filosofia ikasten. Hantxe esnatu nintzen politikara. Kubatik zetorren *La Quincena* irakurtzen genuen, Sierra Maestra, iraultza, Fidel Castro, Che Guevara... Kastrista sutsu bihurtu ginen. Bestalde, behin, Tafallako jaun bat ezagutu genuen, Doxandabaratzen izenekoa, gudari izana. Gerrateaz eta politikaz berriketaldi luzeak izan genituen, Zidakos erreka ezkien artean. Orri klandestinoak ere jarri zituen gure eskura, *Irrintzi* zuten izena, Caracasetik-edo zetozenak. Doxandabartzek diktaduraren eta Francoren aurkako kontzientzia bizia piztu zuen guregan. Nire kasuan, politikarako grina. Euskara lantzen ere Erriberrin hasi ginen, serio lantzen! Hantxe irakurri nituen Joxe Azurmendiren lehenengo poesiak.

Eta atzera Arantzazura, teologia ikastera.

1961ean izan zen hori. Bederatzi urte lehenago bezala jarraitzen zuten Oteizaren apostuluek kamino bazterretan. Eta hantxe egon ziren 1969 arte. Hurrengo urtean ireki zen absidea egiteko lehia-keta. Bi urtez parean izan genuen Lucio Muñoz, obra zoragarri hura lantzen. Santutegi berria eratu zen, poliki-poliki, eta inguruan obra handiei ekin zieten: apaiztegi erraldoi berria, frontoia, plaza zabala... Langile multzoa bildu zen, berrogeita hamarren bat. Espainiar estatuko nekazariak ziren gehienak, denboraldi bateko langile merkeak. Barrakoi lotsagarrietan jarri zituzten. Ni haiengana jotzen hasi nintzen, harreman estuak sortu arte. Orduak ematen genituen

Juan Mari Zulaika

ZARAUTZ, 1942



Teologia ikasketak egina, frantziskotarra, apaiz langileetako izan zen, atxilotu eta torturatua, Zamorako kartzelan preso... Irakasle, kontulari, informatika saltzaile eta programatzaile irabazi du ogia. Goldatu Memoriazale Elkarteko kide da, Argentinako kereilan parte du eta, are, beste hainbatek bere testigantza eman dezan lan egin du, eraginez. Hiru liburutan sakabanaturik dira bere bizi eskarmentuari dagozkionak: *Zamorako apaiz-kartzela. Eliza eta estatuaren presondegia (1968-1976)*, *Apaizak ere torturatuak*, eta *Bizitza bi aurrez aurre. Arantzazu, Kuba, Bilbo, New York*. Oraindik orain, berriz, *Apaiz kartzela* dokumentalean ikusi dugu.

elkarrekin, solasean, jaten, edaten – Galiziako orujo gogorra, batzuetan–, tabernara joanez... Gure nagusiei langile mixioan ari ginela esaten genien. Horri jarraituz, apaiztu eta langile anaidiak sortzea zen zenbaiten ametsa; hasteko, nirea. Komentuak herriagandik urruti zeuden, eta uste genuen frantziskotar txirotasuna predikatze-ko biderik jatorrena zela eguneroko ogia norberaren izerdiz irabaztea. Langileekin bizita baino ebanjelioa bideratzeko modu hoberik ez zegoen, gure ustez.

Lagun min egin zenuen Migel Anjel Lored, kubatarra.

Teologia ikasten ari zen, hainbat latinoamerikarrekin batera. Lagun min egin ginen. Berehala gonbidatu nuen nirekin batera langileekin biltzera. Habanan burges familiakoa izanagatik ere, pozik etorri zen. Ados ginen gauza askotan. Eztabaida garaia zen, pil-pilean zegoen dena: Kubako iraultza, Arantzazu berriko arte abstraktoa, ikasketetako teologia biblikoa versus eskolastika zaharra. Loredoa iaioa zen bai teologian, bai artean. Bestalde, Biblia ordu arteko kortse estuetatik atera eta libreago interpretatu behar zela erakutsi zigun Aita Goitia ospetsuak. Israeletik etorri berria zen...

Adiskide min zuek, baina nork bere bidea hartu behar izan zuen. Zuk Bilbora egin zenuen. Hark, Kubara.

Bai, hori ere bai. Meza esan, langileen aurrean, eta hilabetera joan zen Kubara, Fidel Castroren Kuba komunistara! Niri urtebete geratzen zitzaidan apaizteko, eta, bitartean, barrakoietako langileen ondora joaten segitu nuen, egunen batean fraidez osatutako langile anaidia eratzeko gogoz. Kontua da Migel Anjel Habanara heldu eta elizak itxita ikusi zituela. Hala ere, apostolutzari lotu zitzaion. Sekulako lana egin zuen. Bateko katekesi, besteko parrokia bizitza, hitzaldiak eta liturgia eta teologia berriak... Arrakastaz gauzatu zuen bere lana. Erregimenaren buruzagiek Loredori hegoak ebakitzea erabaki zuten arte. Ez zuen urte eta erdi ere iraun. La-

gun bat infiltratu zioten, muntaia bat ere izan zen tartean, eta, azkenean, 9 urte eta 8 hilabete eduki zuten preso uharteko kartzela gogorrenetan, 1976 arte.

Paralelismorik bada Loredoren eta zure bidearen artean...

Bai. Arantzazutik irten ginen biok, ni Bilbora, hura Habanara. Laster asko, kartzelara sartu gintuzten biok. Hura Kuban, Zamoran ni. Biok jaso genituen tratu txar eta torturak. Ni, Francoren diktaduraren biktima izan nintzen. Hura, Fidel Castroren erregimenarena. Gero, behin baino gehiagotan agertu zen Giza Eskubideen Europar Batzordean Kubako presoen bozeramaile, haien eskubideak urratzen zirela salatzerako. Nik, aldiz, berdin jokatu izan dut Goldatun, NBEko batzordeetan eta eurodiputatuen batzarretan, baina frankismoaren bidegabekeriak salatze-ko. Hortxe bi lagunon paralelismoa. Horrek, eta Kuba eta Espainia-



Kuba eta Espainiaren arteko espetxe politiken konparatzeak, katarsira eraman ninduen, kastrismoaren okerrak gaitzesteraino”

ren arteko espetxe politiken konparatzeak, katarsira eraman ninduen, kastrismoaren okerrak gaitzesteraino.

Bitan izan zen Euskal Herrian.

Lehenengo aldiz 1984an etorri zen. Erromara zihoan, eta hemen izan genuen. Ideologiaz urrun ginen

bata bestearengandik, murturreko jarreretara aldentuta geunden, baina adiskidetasun zaharraren txingarrei eutsi genien. Puerto Ricon egon zen urte batzuetan, eta, azkena, New Yorken bizi izan zen behin betiko. Eta handik etorri zen 2006an. Adiskidetsu biok, baina ez lehenengo topatzean bezainbeste. Bilbon izan ginen, Guggenheim eta Arte Eder museoetan, bera ere margolari baitzen, eta, jakina, Arantzazun. Bera, elizaren ministerioan buru-belarri sartuta, eta ni oso beste aldera. Ni frankismoaren biktima, kastrismoaren alde. Hura Castroren biktima, kastrismoaren kontra. 2012ko gabonetan, hil zela jakin nuen. Min egin zidan haren heriotzak. Baina ordurako liburu bat idazten ari nintzen, aurreratuta neukan, eta liburu haren bidez ordaindu nuen Loredoa adiskidearekiko zorra.



Loredoz ari zinela, Zamoran preso izan zinela esan diguzu...

Bai. Bidea egin nuen... Apaiztu eta Bilboko Iralabarrira destinatu ninduten. Orduan txer sortu genuen auzo elkarte. Langile eta militante sindikalista asko egin nituen lagun. Garai bateko HOACeko (Ekintza Katolikorako Langileen Anaitasuna) hainbatekin konektatu nuen. Baina arazoak izan nituen nagusiekin eta gazteriarren ardura kendu zidaten, baita Iturrigorriko parrokia txikia ere, emakumeei pilula antisorgailuaz hitz egiteagatik. 1966an, berriz, diktaduraren 30. urteurrenarekin, Francok erreferenduma deitu zuen. Nik, egun hartan, hemengo apaiz askorekin batera, abstentzioa aldarrikatu nuen meza nagusiko sermoian. Errektoreak zigortu, eta bazkaldu gabe utzi ninduen. Nagusiak, apaiz langile-edo, nahi nuen tokira alde egiteko esan zidan. Banuen beste lagun bat, Felipe Izagirre, Bermeon fraide zegoena, ni bezain erreta hura ere. Hots egin nion, eta Eibarrera joatea proposatu nion, eta langile anaidia sortu genuen han, langileen alde eta diktaduraren aurka. Lehen lerroan ginen! Krisialdia zen orduan ere, eta Elgoibar eta Ermua bitarteko fabrika eta tailer denak korritu genituen lan bila. Nik fundizio zahar batean topatu nuen lana, eta Felipek, aldiz, bestelako tailer batean, fresadore.

1968ko ekaina. Txabi Etxebarrieta. Txabi Etxebarrieta hil zuten, eta hile-

ta, eta manifestazioa. Eta manifestazioa abiatu baino lehen, bi polizia sekretak Felipe [Izagirre] eta biok harrapatu, ezkaratz batera tatarrez sartu, buruan jo eta odola dariola utzi gintuzten. Etxera joan ginenean, berriz, txapelokerrak etorri zitzaizkigun, kuartelera eraman eta gau osoan eduki gintuzten, kulatakolpe eta ostikoka, errukirik gabe. Dozena bat ziren, gu jipoitzen. Oso haserre zeuden kalean zabalduko orri baten kontura. Haien gorrotoa! Gerritik orkatiletara, dena ubelduta utzi ginduzten. Argazkiak ere egin genituen, torturaren lekuko izateko, eta Juan Mari Bandres eta Miguel Castells abokatuei eman genizkien. Orduko Jazinto Argai gotzainari eman zizkioten, zer gertatzen ari zen ikus zezan. Hurrena, argazki bila joan zitzaizkionean, gotzainak esan zien “galdu” egin zituela gure argazkiak, torturarenak. Horrelaxe!

Horrek eraman zintuzteten Zamorako apaiz kartzelara?

Bai, baina ez berehala. Eibarren, guardia zibilen kuartelean jipoia jaso eta hurrengo egunean, Martutenera eraman gintuzten. Ekainean bi aldiz eduki gintuzten han, egunetan. “Bidelapurria eta Terrorismoa” zen akusazioa. Baina apaiz ginen, eta ezin gintuzten kartzelan nolana hildu. Beste apaiz bat, Alberto Gabikagojeaskoa, Dueñaseko komentuan zeukaten preso, edo itxita, baina jendea



MEMORIAREN ERAGILE

“Gehienbat, memoriaren eragile lanetan aritu naiz. 2012ko urtarri-lean, hemengo ehun bat preso ohi elkartu eta Goldatu elkarte sortu genuen, eta Argentinako kereilan parte hartu. Ehun kereila baino gehiago bidali dizkiogu Maria Servini epaileari. Frankismoa eta frankisten inpunitatea salatzea dugu helburua, 1977ko Amnistia Legea aldaraztea. Ez dugu lortu Martin Villa eta torturatzaileak auzipetzea, baina kontzientzia zabaldu dugu, eta erakunde publikoak ere inplikarazi ditugu, neurri batean”.

Azken hitza

ZAMORAKO KARTZELA

“Kartzela hark interes handia piztu du beti. Hainbat artikulu, elkarrizketa eta erreportaje egin izan dira han eta hemen, eta, azkenean, dokumentala egin du Maluta Filmsek: Apaiz-kartzela. Apirilean aurkeztu zuten Donostiako Giza Eskubideen zinemaldian. Udazkenean hasiko dira zinemaldietan eta telebistetan zabalitzen, gure hiri eta herrietan, Katalunian eta Espainiako Estatuan. Eskertzeko lana. Kartzeletako historia isilaraziek ondo mereziak dituzte horrelako aitormenak”.

bisitan joaten zitzaion. Sekulakoa zen elkartasuna. Bitartean, gu Martutenen, eta apaiz errebelde zerrenda luzea zain! Eta Konkordatu kartzela sortu zuten, Zamorako, apaiz kartzela, munduan bakarra. 68ko uztailearen 22an sartu gintuzten Zamorara, eta hantxe zegoen bezperatik Alberto Gabikagojeaskoa. Estreinatzea egokitu zitzaigun. Francoren diktadurak

54 apaiz eduki zituen han preso. Haietatik 43, euskaldunak. 1976an libratu zuten azkena.

Zenbat denbora egin zenuen preso Zamoran...

Hiru egonaldi egin nituen, bederatzi hilabete denera. 1968koa izan zen lehen, 1969an bigarren, eta 1970ean hirugarren. Lehenengo biak, isuna jaso eta ez ordaintzeagatik. Hirugarren aldian, epaiketara militarra egin ziguten, Loiolako Kuartel Militarreko Arma Ganberan. Ikustekoa zen mahaiburu egin zuen militarra, haren domina mordoa-eta! Akusazioa, Txabi Etxebarrietaren manifestazio hartan parte hartu genuela. Hiru urteko kartzelaldia eskatu zuen fiskalak, baina sei hilabetera jaitea lortu zuten gure abokatuek, Bandresek eta Castellsek. Denera zortzi hilabete bete nituen Zamoran, eta libre nintzen 1970eko irailean. Batzuek zortzi urte ere bete zituzten!

Atzerrian ere eman zenuen zuen egoeraren berri...

Zamoratik irten nintzen batean, Herbehereetan izan nintzen, "apaiz kontestatarioen" batzarrean parte hartzen, apaizak biltzen gintuen Gogor taldeko zenbait lagunekin. Zamorako presoan izenean jardun nuen, apaizak zertan ziren, kartzelako egoera zertan zen, diktaduraren jokabidearen berri emanez... Han nekez ulertu zuten gure egoera, nola zitekeen apaizak kuartel militarretan epaitzea eta kartzelara sartzea. Francoren berri bazuten, baina ez zekiten, nonbait, Eliza diktadorearekin bat eginda zegoela. Dena dela, bazegoen alde hango apaiz haien eta gure artean. Esan nien: "Zuek zelibatuaren kontrako borrokan ari zarete. Gu, oinarrizko giza eskubideen alde, herriaren askatasunaren alde, torturen kontra". Hango txalo zaparrada!

Zamoratik gerora, zeure gisako bizimodua egiteko moduan izan zinen?

Lehen atxiloaldia eta gero, polizia Eibartik kanporatu gintuen. Orduan, Bilbora joan eta berehala hiru fraideko anaidi berria osatu genuen Errekaldeberri auzoan. Lan egiten genuen, etxebizitza bat errentan hartu eta hantxe jarri ginen bizitzen. Auzo elkarteko eta sindikatuetako kideekin harreman estuan ginen. Arratsalde, Deustuko Unibertsitatean Soziologia ikasten hasi nintzen. Kartzelako azken egonaldian laugarren



urteko azterketak egitea zegokidan, baina kartzelako zuzendariak ez zidan utzi. Eta ez nituen ikasketak bukatu, gero ez bainuen aurrera egiteko modurik izan.

Frantziskotar izateari utzi zenion noizbait.

Bai. Errekaldeberri oinarrizko kristau komunitateetan mugitzen ginen, mezak Eliza ofizialetik kanpo ematen ginen, inoren etxean. Ezkontza batzuk ere egin nituen era hartara. Handik pare bat urtera, erlijioarekiko desadostasunak areagotu besterik egin ez zirenez, anaidia laga nuen, akordu onean. Inoiz esan badut ere, ez da egia sinesmena elurra hego haizearekin bezalaxe urtu zitzaidanik. Horrek lanak eman zizkidan. Zamoran, zenbait irakurketa egin ahal izan nituen, Askapenaren teologiaz, adibidez. Bazen liburu bat, *La muerte de Dios* (Jainkoaren heriotza), teologo protestante batena, barruak irauli zizkidana. Ezkerreko ideologiak nagusitu ziren gizartean ere eta sekularizazioa erabatekoa izan zen. Apaiz izateari utzi eta lanari heldu behar izan nion.

Eta harrezkero, zer bizimodu egin zenuen?

Algortako ikastolako irakasle izan nintzen urte batez. ETako kide nintzen ordurako. Egun batean, Jose Antonio Etxebarrieta abokatuaren deia jaso nuen, salaketa bat nuela eta polizia atzetik zebilkidala. Eta neure burua ezkutatu behar izan nuen. Gustuko lana galdu nuen. Ez nuen atzerrira irten nahi izan.

Hilabete batzuk ezkutuan egin nituen, klandestinitatean, lagunaren etxetan biziz eta militantzia lanean, erakundeak agintzen zidana egiten. ETA bitan zatitu zenean, borroka armatua edota masa borroka lehenetsi behar ote zen eztabaidan, ni masa borrokaren aldekoekin geratu nintzen, Liga Komunista Iraultzailean. Lehenengo udal hauteskundeetan, Bilboko zerrrendaburu jarri ninduten.

Memoria historikoaren zaindari zaitugu, eta eragile.

Begira, pasarte bat da, baina oso isilduta daukatena. 2003an, Ibarretxe lehendakari zela, memoria historikoa berreskuratzeko dekretu bat onartu zuten. Ibarretxek Euskalduna jauregiko ekitaldi bat baliatu zuen horren berri emateko. Alegia, ez zuen prentsurreko arrunt bat eman. Orduan, "Geureak, 1936ko biktimak" elkartea sortu genuen eta hasi ginen memoria historikoa lantzen. Lehenetakoak izan ginen. Francoren gerrako biktimak aitortzea eta diru ordainak bilteza zen taldearen funtsa. Arantxa Zabalegi zarautzarrak, adibidez, sekulako lana egin zuen hainbat eta hainbat familiari tramitazio lanetan lagunduz. Erretiroa hartuz gero, berriz, Iralako auzo elkartera itzuli nintzen lanera, nahiz eta auzoan bizi ez. Metroaren laugarren linearen aldeko plataforma sortzen ahalegindu nintzen, esaterako. Gainerakoan, beti ibili naiz politikan buru-belarri sartuta: Ezker Gogoa, Bilboko auzo elkarteen federazioan, Foro Sozialean... Era batera nahiz bestera, borrokan ari gara beti. ●



Naziogintza, ezinbestean

Sitsak janda daukagu Euskal Herria, pipiak jota txoko eta bazter guztietan, zuloz beteta nonahi. Ez dago hiri, herri edo auzorik non euskaldunak une oro bere hizkuntzan iraun dezakeen egun oso bat, hasi goizetik eta gauera arte. Nazio baten ardatza bere hizkuntza baldin bada, eta horrela da izan, gurea egoera benetan larrian dagoela esan behar dugu. Hau bai dela emergentzia egoera, Euskal Herriaren iraupenari begira behintzat.

Okerrena da gure adituen eta arituen artean, hau da, ordezkari politikoen eta alderdien eremuan, inork ez duela txerto egokirik eskaintzen benetako nazio-pandemia honi aurre egiteko. Are okerrago, larrialdiaren tamaina eta neurria asmatu dutenik ere ez du ematen.

Aldiz, ikuspegi objektibo batetik, kasuak ez du zalantzarako tarterik eskaintzen. Euskal Herria nazioa proiektu nahi eta ezina ari da gertatzen luzarotan. Nahi dugu, baina ezin dugu. Zergatik da ezina? Borondatea izanda ere, ez dugu tresna nahikorik, ez dugu proiektu zehazturik eta guk geuk ez dugu biderik markatzen. Erabakitze eskubidea da aldarria, baina ez dakigu zeren alde erabaki daitekeen. Independentzia aipatzen da noizean behin, baina inork ez digu noiz, nola eta zertarako argitzen.

Nazio eraikuntzan,
gure traineruak
“hautsiak ditu
arraunak eta arrakak
ditu ontziak”,
Gandiagak zioen eran

Euskal Herriaren nazio eraikuntzan, gure traineruak “hautsiak ditu arraunak eta arrakak ditu ontziak”, Gandiagak zioen eran.

Monarkia espainiarra eta errepublika frantziarra gainezarri zitzaizkigun aspaldian, eta bi polisistema horien azpimultzo bihurtu gaituzte.

Polisistemen azterketak argi diosku hauek zer diren, nola antolatzen diren, ze baliabide dituzten ezinbesteko (*sine qua non*) bizi irauteko, eta zer gertatzen zaion polisistema horietako bakoitzaren azpimultzo bihurtzen denari. Baina norbaiti hau abstraktuegi egiten bazaio, are gardenago ikus daiteke aplikazioan: zu, gaurko egunera etorrita, monarkia espainiar parlamentario eta konstitu-



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA


zional horretan kokatzen bazara (edo horretara behartzen bazaituzte) eta duzun kokapen horretatik jokatu, nahiz independentzia gura, praktikan monarkia espainiarra bera eta polisistema espainiarra indartu besterik ez duzu egingo.

Adibide baterako, Madrileko gortee-tan jokoan zabiltzala, “euskaldunon zati baten interesen alde” arituta ere, neurri handiagoan egiten duzu, bertan jokatuz, polisistema espainiarraren iraupenaren alde, sistemak berak hori ziurtatzen duelako. Adibide zehatzagoa: zu euskalduna zara, euskaltzale zintzo eta ekina, baina Altsasun, Tolosan, Agurainen edo Bilbon bizi bazara, gaztelera jakin eta ezinbestean erdal hiztunekin topo eta berba egin beharko duzunez, gaztelera darabilzun unetik bertatik, gaztelerrari mesede eta euskarari kalte egiten diozu, nahi ala ez. Gaztelera bihurtzen ari zarelako unibertsal dominantea Euskal Herriko edozein eremutan. Polisistema espainiarraren iraupenerako ezinbesteko baldintza eta bermea horixe baita, hain zuzen. Gure arteko euskaltzalerik behinenak ere kalte egiten dio euskarari Euskal Herriko edozein txoko, komunikabide edo gunetan gaztelera darabilenean, gaztelerrari ematen diolako unibertsaltasuna eta neurri berean euskarari kendu. ●

Diziplinatzan



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

- Telefonoa kotxean ahaztu zait.
- Hartu nirea.

Erretratu ona zegoen taberna hartan. Traste, oroigarri eta bestelako gomutapenen artean, buru-hezur bat FMLNren kapela jantzita; alboan, piraten ezpatak gurutzaturik. Edozein arima argazkilarik atera nahiko lukeen bodegoia.

- Joe, txo! Erretratuak atera bai, baina ez ukitu besterik!

Pare bat *app* momentu batetik bestera desagertuak ziren. Tirakada batez kendu nion telefonoa eskuetatik. Ez nintzen haserretu, haserreak kontu garrantzitsuetarako gorde behar direlako eta banekien nahi barik izan zela. Baina ez zidan graziazirik egin.

Ez omen zitzaion ondo iruditu alboko mahaian jesarrita zegoen morroiari. Ez dut gogoratzen zein izan zen bota zuen lehenbiziko esaldia, inoren elkarrizketan sartzeko estreinako purrustada. Baina jakin badakit are grazia gutxiago egin zidatela segidan etorri ziren komentario eta sarramuska guztiek. Dei diezaiogun, geure artean eta elkarri ulertzeko, "Erronkoso jauna", adibidez.

Erronkosoren ustez, "emekiago" jokatu beharra nuen. Akaso irribarretxo xalo bat ere espero zuen. Eratsu, otzan

eta modutsu esan behar omen nion albo-ko gizonari esan beharrekoa, ezer esan behar banion, jakina. Baina Erronkosoren berbak ez zeuden bereziki niri zuzenduta; bere begiradek beste gizonaren adostasuna bilatzen zuten. Talde berekotasat, bere parekotasat, hartua zuen horren konplizitatea. Beste gizon hori diziplinatzea zen helburua, ni diziplinatzen ikas zezan. Baina gizon horrentzat diziplina baliiodun bakarra birrajaso olimpikoa denez, garagardoan kontzentraturik jarraitu zuen. Lehen porrota.

Erronkosori muturra apurka okerragotzen ari zitzaion. Bigarren purrustadaren txanda: "Marisabidilla" deituta neskatok isilarazten diren bezala uste zuen, agian, isilarazi ahal direla baita oilotzen ez diren emakumeak ere. Konfiantza erakusten duten andrak harropuzkeriaz erruduntzea beste diziplinatze mota bat baino ez da. Norbaitek esan zuenez, autoestimuz erantztea biderik zuzenena da pertsonak hutsune bihurtzeko.

Baina Erronkoso horretan saiatu den enegarrena denez, hala ibili zen, alferrikako ahaleginetan, harik eta autore bat parafraseatu nuen arte. "Hori matxista hutsa da!", erantzun zidan amorrante doinuaz. Hamaika ikusi eta entzunak nituela uste nuen nik, baina zenbakiak

bezala, zenbaiten badaezpadakokeria, antza, mugagabea da.

Espainiar kazetari batek duela gutxi artikulua batean azaldu bezala, matxismoak, bere ardurei ihes egiteko, errudundu egiten gaitu: emakumeok edo gehiegikerietan gabiltza edo zentsoreak gara. Eta mintzakidea, momentu hartara arte, nire balizko historiak agerian jartzean zentratu bazen ere, heldu ei zitzaion zentsore papera egozteko momentua.

Ez dakit autore hori bereziki matxista den ala Erronkosok asmatu zuen beste interes batzuekin, baina ez dit bereziki inportatzen. Zentsuratu behar omen nuen, bera eta bere ekarpen guztia, eta, hortaz, nik ere esana nuena desesan. Aurreko milurtekoetako matxista guztien ekarpena kontuan hartuko ez bagenu, ez genuke izango ez historiarik, ez zientziarik, ez arterik, ez teknologiarik, tamalez. Hala-koak ezkutatu baino, erakutsi eta irakatsi beharko lirakeke, jakina, izaki humanoen garapena balioetan ere izan dadin. Erronkosok ez zeukan harrezkero interesik.

Erronkoso lakoak asko eta edonon dira. Euren gaineko teoriak zuzenak direla praktikan erakusten.

Guk etxera egin genuen: batak, nahi zituen argazkiekin; besteak, egun hark, agian, artikulua bat merezi zuela buruan. ●



ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI
EUSKARA IRAKASLEA

Tipikoa mitiko

Mitikoa eta tipikoa nahasten dituzte gaur egungo gazteek. Gaztelaniaz bereziki, baina baita euskaraz ari direnean ere. Tipikoa den egoera deskribatzeko erabiltzen dute “mitiko”: “Mitiko norbaitekin zoazela igogailuan, biok isilik...”. Berez, mitikoa gogoangarria da eta ohikoa tipikoa, baina erabilera librea da eta hizkuntza bizia.

Kontzertuak, gertakariak edo esaldiak izaten dira mitikoak. Esaldi mitikoa da, adibidez, “Hizkuntza bat ez da galtzen...”. Nahaskorra da jarraian esateko, baina barneratuta ditugu hitz-jokoa eta zentzua. Ate askoren gainean egon da zintzilik, zuri-belztean, euskaldunon hizkuntzarekiko konpromisoa xaxatzen, tipiko bihurtu arte.

Esaldia sortu zeneko euskaltzaleek izugarritzko lana egin zuten. Euskara ezkutu-tik esparru guztietara eramana zuten eta tresna sorta ikaragarria sortuta. Argi zegoen euskararen egoeraren ardura ez zela soilik hiztunona, alegia, erakundeek eta arduradunek neurriak eta baliabideak jarri behar zituztela: D eredu orokorra, hizkuntza plangintzak, diru-laguntzak, paisaia linguistikoa, erabilera kuotak... Eskubideen bermeak hartu zuen lehentasuna.

Ordizian Lazkao Txikiren beste esaldi mitiko bat eraman dute mural erraldoi batera: “Martxa honetan aurki erderaz hitz egingo dugu euskaraz ari garelakoan”. Ez

da Artzerena bezain esaldi hedatua; euskaldun gutxi ezagutzen zuten orain gutxira arte, “erdigunekoenek”. Erdi-erdian bertsolari txikia, koloretsu, irribarretsu gure hizkera zaintzeko eskatuz.

Ohikoa izaten da aldatzen ari denaren aurrean beldurrak eta erresistentziak sortzea, eta horren adierazgarri dugu esaldia. Aldizkari honetan bertan 1991n egindako elkarrizketan ere “Euskara, benetakoa, zaharra da” eta “laster bai esan beharrean ‘si’ esango dugu eta egokiagoa irudituko zaigu” bezalakoak bota zituen bertsolari txikiak. Konfuziok berak, k.a. 500. urte inguruan gazteen hizkera kritikatzeko omen zuen.

Esaldi mitikoek ikuspegi edo ideia baten esentzia biltzen dute eta fokua bideratu. Azken boladan nago gazteentzako fokua Artzerenean jarri beharko genukeela berriro ere. Izan ere, gazteek inguruan dituzten gehienak euskaldunak dira (%80tik gora), erakunde gehienetan plangintzak daude, baina eskaria falta da. Inoizko aukerarik handiena dute euskaraz bizitzeko eta zailtasunak eta eskubide urraketak identifikatu eta salatuz.

Baina, horretarako euren kontzertu, gertakari eta esaldi mitikoak bizi eta sortu behar dituzte, erabilera eta jarrera proaktiboak tipiko bihurtu, eta topikoak, topikazoak, baztertu. ●



UXUE APAOLAZA

Disimulatu

Batuetan komeni da diskurtso publiko egia ez izatea, egokia baizik. Politikari jakin bat arrazista bada, disimula dezala. Komeni da zenbait gauza esatea jendartean lotsagarritzat jotzea: ultraeskuina lotsa batzuk astintzen hasi orduko ikusi dira ondorioak. Baina disimulatu, zenbat?

Afganistango erretiradaren ondoren, Macronen deklarazioek aztoratu gaituzte. Berehala hasiko omen dira lanean gure mugak babesteko. Egiaegi. Ume horiek guztiak ez dira pasako “etorkizun hobearen bila”. Errealista Marlaska ere, Ceutako haurrak Marokora itzuli dituenen, ultraeskuinak esan bezala, Espainia inbaditzera sartu balira bezala. Ultraeskuinaren hitzek ez dute beharrezko masa konbentzitzen, horregatik disimulua, “itzulera lagundua”, “beren

herrira itzuli nahi zuten”, “tortura ez da ohikoa izan”. Barkatu, hori ez da oraingoa. Inbasoreek haur, heldu pobre itxura dute, inbasio bat gauzatzeko ezgai.

Zer egin diskurtso ez-lotsagarriari eusteko, ultraeskuinaren helburuak betez. Mugak harantzago eraman, adibidez, deslokalizatu. Komeni da gogoratzea Europa gotorlekuaren mugak Turkiak, Libiak, Marokok... zaintzen dituztela (arrazistak ez garen ez, ez dugu esango lehendik ere basati samarrak iruditzen zitzaizkigula), guk ordaindu egiten diegula, gure sistema arrazistak disimulatzen jarrai dezan. Muga apur batez lasaitu, hori baino ez du egin Marokok. Izan ere, agian komeni da ahaztea gure lasaitasuna, Marokotik bezala Afganistandik, ultraeskuinak ere ahoskatu ezingo lituzkeen moduetan bermatzen dela. ●

Frantziara



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

Uda honetan aurkeztu du Arnas Dezagun plataforma guraso talde batek. Batik bat eremu erdaldunetako jendea da, kezka batek batzen duena: umeak D eredura eraman, eta umeak etxeko hizkuntzaren arabera bereizten ez dituztenez, ume euskaldunak erdaratan diluitzen omen dira eskolan sartu bezain laster. Gainera, arraro senti daitezke gelan, desberdin, are baztertuta, eta gainerako umeekin komunikatzeko arazoak izan ditzakete. Eskatzen dute arnagunearen ideia eskolan txertatu eta etxeko hizkuntza euskara dutenak elkarrekin jartzeko gela berean.

Ni alde. Badakit gai arantzatsua dela, baina apustu sendoak egiteko garaia bada, nonbaitetik hasi behar. Euskaraz bizi nahi duenari aukera hori eman. Baina kezkatzen nau, besteak beste, bereizketak lekarkeen bazterketak. Taldea osatzen dugunean nor uzten dugun kanpo. Plataformaren jarraitzaile batzuei sarean irakurri dizkiedanek ere ez naute sobera animatu. Agian interneteko hizkera erasokorra da, edo lau ero anonimo, batek daki. Baina momentuz, pixka bat sentitzen naiz “futbola gusta-

Irunen eta Hondarribian bizi den ikasle andana joaten da egunero Hendaiara, Donibane Lohizunera, Urruñara. Seaskako ikastolak alde batera utzita

tzen zait, inguruan duena ez” posizioan bezala. Bietan patetiko samar, bietan koldar; alde egonda baina altuegi esan gabe, badaezpada ere.

Gaiari aurrez aurre heltzea eskertzen dut, edonola ere. Baina Gipuzkoako Bidasoan bada beste kontu bat. Ohiko EAEko eskolatze-aukeretatik kanpoko eredu bat ere baitago gurean, aski hedatua, eta gurasoari galdetuz gero, esaldi gurean ezagun batekin laburtuko dizu: “*Los míos van a Francia*” (“Nireak Fran-

tzia doaz”). Izan ere, Irunen eta Hondarribian bizi den ikasle andana joaten da egunero Hendaiara, Donibane Lohizunera, Urruñara. Seaskako ikastolak alde batera utzita, gurasoek aukeran dituzte B eredu moduko bat eta eredu frantses elebakarra.

Zergatik? Bada, beste hizkuntza bat ikasten omen dute horrela. Oraindik ere glamour ukitua duela esango nuke, gainera. Daturik ez dugu, zoritxarrez; konstatazio bat bai, ordea: euskal soziolinguista baikorrenen amets hezea, hau da, EAEko gazteen artean euskararen ezagutza unibertsala, gure inguruan ez da epe laburrean gertatuko, ume euskaldunak maiz egingo baitu topo bertako ume erabat erdaldunekin.

Frantsesa dotore ikasten dute, baina ai!, beste zerbait ere bada atzean nahi-taez, lapurtar olderik ez baita inoiz antzinako Irungo A eta B ereduetara ikas-tera etorri egunero autobusean ordu eta piko eginda, espainiera den hizkuntza erraldoia menderatzeko. Fenomeno horren atzean benetan zer arrazoi dauden gustura jakingo nuke; zeren bila doazen, edo zerengandik ihesi. ●

Basherrri
sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus



LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.



ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:

KOMUNITATEA@ARGIA.EUS

ARGIAko kide egin
halako proiektuak bultzatzeko:

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA
943 37 15 45



IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

Borroken topagune, utopien biderkatzaile

Asteazkenetik igandera bitartean ospatu da Artean (Bizkaia) Iraultza Txikien Akanpadaren bigarren edizio arrakastatsua. Ehunka militante eta herri mugimendu anitzen topagune bihurtu da. Bost egunez elkarrekin hausnartu, borrokatu, eraiki eta gozatu dute, autoantolakuntza oinarri, Ongi Bizitza praktikan jartzen saiatuz. Intentsitate handiko egun horien kronika duzue hurrengo lerroetan.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Utopiak batu gaitu”, dio hizlarieta-ko batek harrera ekitaldian. Basoa Defendatzaileen Etxean gaude. Beren militantziaren ondorioz sorterritik ihes egin behar izan duten ekintzailentzako aterpea da Basoa proiektua, eta aktibismoa birpentsatzeko gunea. Hiru solairuko eraikin handiak hainbat hektareako belardia eta basoa ditu inguruan. Asteazkeneko 17:00ak dira, eta Iraultza Txikien Akanpadarako (ITA) prestaketa lanak aspaldi hasi baziren ere, kanpaldia orain hasi da ofizialki. Aurretik, gozamenerako eta borrokarako bost egun, eta une bakoitza zukutu ahal izateko oinarri sendoak: egitarau mar-dula -50 jarduera baino gehiago doze-naka eragile eta artisten ekarpenekin-, azpiegitura zabala -Basoa etxea, hainbat karpa, txosna, kanpatzeko espazioa, igerilekua! eta erreka, dena naturaren erdian-; eguraldi bikaina iragarria; egun bakoitzeko 300 pertsona inguru aurrez izena emanda.

HITZALDIAK ETA EZTABAIDAK ARDATZ

Ekitaldia amaituta, astirik galdu gabe, hiru guneetan banatu da jendea, kanpal-

diko lehenbiziko eztabaida eta hausnar-keketan parte hartzeko. Afaldu ostean Ane eta Maddi kantautoreek goxatu dute gaua 150 lagun ingururen aurrean.

Ostegunean goizeko 8:00etan hasi dira gosaltzen goiztiarrenak, etxe atzealdeko zuhaizpean 30 bat lagunek luzaketak eta arnasketak egiten dituzten bitartean. Asanblada dago deituta egunero gosari osterako, eguneko beharrei eta egitarauari errepassoa eman eta kanpaldia guztien artean aurrera ateratzeko asmoz. Erdizka bete du bere funtzioa, 9:00etarako jendearen gehiengoa nagiak astintzen ari baita oraindik kafea eskuan eta ogi txigortua ahoan, eta guxtiengoa dira zirkulua osatu dutenak. Hurrengo egunetan indartuko den joera, nekea pilatu eta gau giroa alaitu ahala. “Ongi Bizitza presarik gabe esnatzea ere bada”, pentsatuko zuen egunotan batek baino gehiagok.

Hitzaldi eta eztabaidak dira egitarauaren bizkarrezurra (30 orotara), eta horien bila bertaratu da jendea. Saioen bitartean bada beti inor bainu bat hartzen, lagunekin berriketan txosnan edo belardian, edo siesta indarbertzaileak egiten. Baina gehiengoa hitzaldiz hitzaldi aritu da, ba-

tera joateagatik bestea galtzearen penaz, maiz. Ezin guztiak aipatu, eta Eneritz Arzallus lankideak bideoan grabatutakoen amu-laburpentxoak biltzera mugatuko gara. Saioak osorik ikusi edo entzun nahi izanez gero zabaldu QR-a.

Krisi ekologikoaren inguruko saioan, EH Bilduko legebiltzarkide Mikel Oterok azpimarratu du energetikoa beste krisi askorekin gurutzatzen dela, eta “lurrikarra horren lehen dardarak” sufritzen hasiak garela. Hainbat datu eman ondoren, Emilio Santiago Muiñoren aipu batekin laburbildu du egoera: “Baliabideak gutxitzen doazen jendarte batean, edo inoiz ez bezala partekatzen ikasten dugu, edo inoiz ez bezala hilko dugu elkar”. Bere us-tez, jendarte osoarentzako proiektu askatzaile bat adostea da erronka. Ekologistak Martxan mugimenduko Isa Álvarezek enpleguan oinarritutako lan banaketarekin apurtzeko beharra defendatu du, besteak beste errenta unibertsala ezarrita. Ekonomia feministarekin bat eginez, ekonomia kapitalistaren lehentasunak iraultzea proposatu du: Natura-Zaintza-Komunitatea-Estatua-Merkatua. Sukar Horia mugimenduko Hodei Rodríguez krisiaren aspektu politikoaz mintzatu da. Sui-



tzako Aldaketa Klimatikoaren Legearen inguruko erreferenduma abiapuntutzat hartuta aztertu ditu Europako ezkerrean eta eskuinean atzeman daitezkeen joera nagusiak, eta ilun marraztu duen etorkizunari begira erraziamendua gisako muturreko neurriak proposatu ditu.



MILITANTEEN BILGUNE

Militanteei egin die gonbita bereziki ITAk, askotariko herri mugimenduen topagune bilakatzea xede, nork beretik elkarrekin gogoetatu, borrokatu eta eraikitzeko. Eta militanteak dira Basoara hurbildu diren lagun gehienak. Besarkadetan eta “aspaldiko!”-etan nabari da, konplizitate eta konfiantza giroan, egiteko eta egoteko moduetan. Askotariko borroka esparru eta mugimendutako militanteak. Euskal Herri osotik etorriak, nahiz eta Nafarroako eta Iparraldeko lagun presentzia urriagoa ematen duen –distantziak izango du zerikusirik, ziurrenik–. “Gazte asko daude”, entzun diet zenbait ez hain gazteri, pozez. Adin aniztasuna handia da. Arratian gauden, eta eskualdetik pertsona gutxitxo hurbildu direla dio bertako bizilagun batek; aipua entzun duen ondokoa ez dago ados.

Sendabelarren sekretuak partekatu ditu entzuleekin Garbiñe Larreak ostegun arratsaldean. Jakintza eta jario harrigarria erakutsiz, “bide bazterretan” aurkitu daitezkeen hamabi sendabelarren hamakana propietate aletu ditu: asuna, azeri buztana, plantilla belarra, txikoria, pasmo belarra, berbena... Zertarako diren egokiak (edo arriskutsuak), nola, zenbat denboran eta zein dosian hartu. Belarrekin nola esperimentatu eta modu autogestionatuan

ikasi, jakintza herrikoia baliatuz industria farmazeutikoarekiko menpekotasunetik askatzeko. Pasmu belarra “izugarri toxikoa” izanik ere, infusio “minimalistan” hartuta airez transmititzen diren gaixotasun kutsakorren –“pista ematen ari naiz”– aurkako babesa ematen du. Plantilla belarra ligamenduak eta zaintiratuak osatzeko bikaina izateaz gain arnasketa hobetzeko aproposa baita: “Farmazietan eskaintzen dituzten 20 jarabetatik 15ek plantilla belarra dute, eta batzuk belar hori soilik”.

Haurrak ez dira asko, baina beren jolas, oihu eta korrikaldiekin nabarmentzen dira. “Lur poz-pez dago, umeen jarduerak gidatzen dituzten pertsonak bikainak dira”, dio Gasteizko Estherrek. Alabagatik pozik, eta pozik aukera duelako hitzaldiez gozatzeko edo txandaren bat egiteko. Ez da kasu bakarra. Programatutako jardueretan ez ezik, haurrak ikusten dira elkarrekin jolasean, inongo helduren beharrik gabe.

EUSKARA ETA USTELKERIA

ITAk euskarari eman dio lehenetasuna, baita hizlariak bilatzeko orduan ere, baina euskara hutsezko saioak grabatzeko erabakiak erdira baino gutxiagora murriztu ditu gure aukerak. Hara, gure hizkuntzaren egoera. Hain zuzen ere, euskalgintzako proiektuak eta borrokak aztertu dituzte ostiral goizean Aiaraldea Ekintzen Faktoriako Gartzen Garaiok, Errigorako Peru Aranburuk eta Ipar Euskal Herriko ikasle mugimenduko Oneka Arteagak eta Aitzol Gil de San Vicentek.



Arratsaldeko ustelkeriaren inguruko saioan, ikertu eta salatu zituen bi kasu nagusiak aletu ditu Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioko presidente ohi Ainhoa Intxaurrendietak. Ez sinesteko moduko kontakizuna: legez kanpoko kontratuak, enpresa pribatuen milioi eurotako proiektuak egitera behartutako funtzionarioak –ondoren enpresa pribatuek fakturatzeko lana–, dokumentuen lapurretak, lapurren bahiketa eta tortura salaketa faltsuak lapurreta salatu zuen Intxaurrendietaren aurka, eta askoz gehiago. Gurean eta gaur gertatutakoak, EAJren, enpresariaren eta bankuen eskutik. Zelaietak azaldu du fiskaltzek, poliziek edo legebiltzarrek ustelkeriaren aurka borrokatzeko baliabide falta interesatua dutela, izebergaren punta soilik ikusten dugula. Ustelkeriaren aurkako ADI! Elkarteko Unai Mendizabalen ustez arazoa halere ez da –soilik– EAJ, arazoa da boterea eta publikoa zertarako erabiltzen den gure jendarrean oro har: herritarren dirua esku pribatuetara bidertatzeko. Pasa dira erraustegia, Bidegi, De Miguel, Epsilon, Alonsotegi... eta Euskal Oasiaren kontakizuna ez da pitzatu. Ezinezko helburua? Ez, Zelaietaren ustetan. Gauden tokitik kilometro gutxira dagoen Lemoan, “jeltzaleen feudo historikoan”, ustelkeria “gogor” salatu zuten herritarrek, eta EAJk alkatetza galdu du azken bi legegintzalditan.



GORPUTZA ETA ESPAZIO INFORMALAK

Kontzertuak, folkaraokea, bertso saioa, antzerkia... Bazkal eta afalosteko ikuskitzunean giro ederra sortu da frontoiko agertokiaren inguruan. Programazioa amaituta, gauero bildu dira dozenaka lagun bafleen ondora, dantza gosez, musika jartzaile inprobisatuen erritmoan. Gozatu egiten dute, inguruan *kietoparao* daudenak ere gozaten dute haiei begira. Hain da handia gosea, ostiral eta larunbatean ‘prozesio klandestinoak’ irten direla ondoko poligonora ordu txikitik, parrandari jarraipena emateko.

Larunbat goizean, *Literatura eta euskal gatazka* saioan, Laura Mintegik euskal literaturaren, idazleen eta borroka armatuaren arteko erlazio historikoaz hitz egin du. Distantziamendu prozesu bat marraztu du. 70eko hamarkadan, ETAn ez sartzearen erruduntasuna kudeatzeko, borrokarekin lotu zuten beren lana idazle askok, “modu ekidinezinean”. 2000. urteko idazleentzat, aldiz,

EKINTZA ZUZENA

Ehunka eukalipto moztu eta haritzak landatu dituzte Arratiako baso batean

20 ekintzaile inguru 25 hektareako jabetza pribatu batean sartu dira, eukaliptoak moztuz eta hesiak apurtuz. *Eukaliptorik ez, haritza bai!* mendi martxa bertatik igaro da, eta herritarrek dozenaka haritz landatu dituzte eukaliptotik askatutako eremuan.

Ekintzaileak goizeko 9:00etan abiatu dira Usansolotik, lehenik autoetan errepide estuetan gora, eta ondoren oinez mendi bidexketan barrena. Bidean zenbait ekintzaile taldetik banantzen joan dira, Polizia agertzekotan abisua emateko. Talde nagusia hesiz inguratutako eta eukalipto betetako eremu batera heldu da 10:00ak aldera, mendi baten tontorrean. Hesia gaingitu eta eukaliptoak moztzen hasi dira mendian behera, ilara zabala osatuz, aizkorak, aitzurrak edo matxeteak eskuan. Eukalipto gazteak ziren, txikienak metro erdikoak, garaienak bospasei metrokoak.

Azala izerdi patsetan eta irribarrea aurpegian egin dute hamaiketako. Indar berrituta berrartu dute lana, eta ekintzaileetako lau eremua ixten duten hesiak mozttera abiatu dira. Hiru ordutan dozenaka hektareako ere-

mua "garbitu" dute, ehunka eukalipto moztuta eta hasia puntu ugaritatik apurtuta. Izan da anekdotarako tarterik ere. Inguruan zebilen mendizale batek aurpegia estalita zuten ekintzaileak ikusi ditu, eta hasieran kargu hartu badie ere, hizketan hasi eta minutu gutxiren buruan ondo ari direla eta jarraitzera animatu ditu.

HARITZAK LANDATU

Goizeko hamarretan eta ITAren testuinguruan Arantzazutik irten den *Eukaliptorik ez, Haritza bai!* mendi martxako partaideei sorpresa eman diete ekintzaileek, bertatik igaroko zirenen jakitun. Ordu batak aldera agertu dira ehun bat martxista, eta ekintzaz ohartzean txaloak, txistuak, "Gure basoak defenda ditzagun!", "Ez ez ez eukaliptorik ez!" oihuak nagusitu dira. Eremuan sartu dira haiek ere, eta moztutako eukalipto enborren artean dozenaka haritz kimu landatu dituzte ospakizun giroan. Ekintzaileetako bat martxistei zuzendu zaie orduan: "Eukalipto betetako jabetza pribatu honen zuhaitzak eta hesiak moztu ditugu, gure basoak eta natura defendatzeko, ahalik

eta kalte ekonomiko handiena eragitea helburu. Gora ekintza zuzena!". Basoan galdu dira ekintzaile mozorrotuak, eta martxistek beren bidea jarraitu dute. Eki-menaren bideoa Argiaren webgunean duzue ikusgai.

MASKARA DESOBEDIENTEA

Ekintzaileek maskara gorri-berde batez estali dute aurpegia. Maskara 2017ko martxoan erabili zen lehen aldiz, deialdi anonimo bati erantzunez dozenaka herritarrek Bilboko Iberdrola dorrea okupatu eta bertan kontzertu klandestino bezala bataiatu zutena ospatu zutenean. Eki-menaren bultzatzaileek herritar guztiak gonbidatu zituzten maskara bere egin eta "ekintza desobediente ez-biolentoak" antolatzerara. Kontzertu klandestinoek errepika izan zuten bi hilabetera. Lehenik Durangoko Udaleko osoko bilkuran, sexu eraso batengatik atxilotutako Fran Garate zinegotziaren dimisioa exijitzeko. Ondoren Bilboko Olimpia zaharren egoitzan, erresidentzietako langileekin elkartasunez. Lau urteren ondoren berragertu dira maskara desobedienteak, bestelako ekintza formatu batean. Izango al dute erabilera berririk?





gatazka aipatu ere ez egitea aukera bat zen. Iraganeko eztabaidak hartu ditu go-goan: artearen funtzio etikoa vs estetiko; literatura Euskal Herriaren aldeko borrokaren zerbitzura –Txillardegí– edo jarduera autonomo gisa –Atxaga–. Kurioski, azkenaldian berpiztu diren eztabaida eta ikusmoldeak.

Ekhi Eizagirrek eta Mikel Antzak pertsonaletik heldu diote gaiari. Biek al biek esan dute literaturak bizitza salbatu diela bizitzaren une mingarri edo zaurgarrietan, eta bereziki espetxealdian. Eizagirrek nagusiki poesia idatzi zuen ziegan, barrenak askatzeko, osatzeko, ez gaixotzeko, arnasteko. Intimitatea oinarri. Hasiera batean berarentzako, gero publikatzea buruan, eta argitaratzeak ahalduntzea eskatu zion, eta erabaki bat hartzea: “Intimitatea politizatzea”. Intimitate “interbenitua”, edonola, idatzitakoa epaileek, kartzela funtzionarioek edota Poliziari irakurriko baitzuten.

Txillardegí-Atxaga eztabaidan “atxagista” dela adierazi du Antzak, gatazka eta literatura banatuta bizi dituela. Batetik, praktikan, sasia egon den urteetan ez baitu idatzi. Bestetik, ulerkeran: “Gatazkan min eman dut eta min hartu dut; literaturan gozatu nahi dut, eta gozarazi”. Kontraesana aitortu du: espetxeratu zuten ge-roztik idatzi duen guztiak gatazkarekin lotura zuzena du, besteak beste trans-

misioaz eta errelatoaz arduratuta. Ziklo hori ixteko nahia azaldu du, halere.

Marta asteazkenetik dago Basoan, bizitzaren ari denarekin pozarren. “Baina”-ren bat jartzekotan, dio lagunen artean komentatu dutela gorputzari arreta gehixea go jarri beharko litzaiokeela. “Luzaketa eta arnasketa saioak bi egunez soilik eta oso goiz izan dira, eztabaida saioen metodologia parte hartzailea bai, baina nahasketarako eta ezagutzarako aukera gutxitxo eman du”. Azken horretarako larunbat goizeko Arratiako borroken kontaketa ibiltaria oso aproposa izan dela erantzun dio Pilik, eta txandetan ere ezagutzen ari dela jende asko. Sukaldean, umeen gunean, garbiketean, harrera gunean egunero dozenaka lagunak egin dituzte txandak, izan dituzte solasaldiak, ezagutu dituzte

ondokoaren militantziak, egin dute barre. Saretu eta komunitatea egiteari begira altxor ukigaitz bezain garrantzizkoa.

MOBILIZAZIOA

Antolatzaileei kexuren bat heldu zaie janariaren “gehiegizko” prezioagatik, ekonomikoki zaurgarrienek ordaintzeko zailtasunak izan dituztela adierazita. Eguneko hiru otorduak 20 euro; hiru egunetakoak 50; kanpaldiko egun guztiengatik 60. Elikagai gehienak bertako produktore txikiei erositakoak dira. Txanponaren beste alde da prezioak orientagarriak direla: propio adierazi da zuloa ez egitea bilatuz jarri direla zenbatekoak, baina nork bere ahala eta borondatearen arabera ordaindu dezakeela gehiago, gutxiago, edo ezer ere ez. Oraindik ere, or-





dea, errazagoa zaigu proposatutakoaren gainetik ordaintzea kontrakoa egitea baino. Korapilo interesgarria aurrera begira, prekarizazio eta pobretze garaiotan.

Tokiko borroka bati loturiko mobilizazioa egin da bigarren ITAn ere: 2018an, Zubietan, martxa desobedientea egin zen erraustegira; Arratiako honetan, eukaliptoaren aurkako eta haritzaren aldeko mendi ibilaldia antolatuta dute herritar batzuek. Lehen pinua bezala orain eukalipto ari baita eskualdea inbaditzen, lurra pobretuz eta poltsiko gutxi batzuk aberastuz. Arantzazuko plazatik mendialdera irten dira goizeko hamarretan ehun bat lagun, arazoa bertatik bertara ezagutzeko eta bidean

haritz kimu batzuk landatzeko. Bidean ezusteko ederra jaso dute –irakurri ekintza zuzenaren kronika aparteko koadroan–. Bitartean Basoan hainbat eskuk, bereziki haurrenak, murala margotu dute frontoiaren hormaren atzealdean: “Bizirik gaude”. Beste esku batzuk kanpaldiaren desmuntaketa lanak aurreratzen hasi dira goizetik. Agur giroa usaintzen hasi da.

BATU, INDARTU, SAKABANATU

Bizi dugun egoeraz eta datorrigunaz ezkor hitz egin dute egunotan hizlari gehienek –argudio sendoekin, tamalez–. Baina ez etsipenez, borrokarako grinez baizik. Proposatuta dira askotariko kolap-

soei aurre egiteko neurri politiko, ekologiko eta komunitarioak; proposatu dira gatatzak modu punitiboan ez kudeatzeko bideak feminismotik eta espetxearen arkako mugimendutik; eskaini dira antolaketa eta militantzia ereduak zein desobedientziarako erremintak; azaldu dira martxan dauden proiektu askatzaileak euskalgintzan, elikadura burujabetzan edo ekonomia sozial eraldatzailean; prekarizatuenean beren autoantolaketa eta borroka esperientziak jarri dituzte mahai gainean; arrazializatuek aliantzatarako zein pribilegioak lantzeko gonbitak luzatu dituzte; eztabaidatu dira informazio burujabetzan sakontzeko urratsak. Hori guztia modu komunitarioan eraiki eta kudeatu den espazio batean gertatu da, bizipozak blaitutako giro gozagarrian. “Giroaren polita”, izan da erantzun errepikatuen jendeari kanpaldiaren sentsazioaz galdetzean.

Utopiak elkartu ditu ehunka militante eta mugimendu bost egunez. Iraultza Txikien Akanpada elkar ezagutzeko, gozatzeko eta elikatzeko topagune bilakatu da. Indarberrituta nor bere herrira eta borroketara bueltatzeko unea da orain, utopia azken bazterreraino baretzeko. ●

Irail-urrikoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29€ ● aizu.eus

Ultraeskuina erretiran:

Lilleko paradoxa

Urrun da jada Trumpen jarraitzaileek Washingtoango Kapitolioari eginiko eraso. Zenbait aspektutan eskuin muturraren erretira ideologiko planifikatua ari gara bizitzen. Frantzian Bilgune Nazionalak edo Italian Legak martxan jarritako estrategia berria horren lekuko. Helburua: eskuin tradizionala irenstea.

XUBAN ZUBIRIA

2018ko martxoa. Lilleko kiroldegira joandakoen artean erabateko isiltasuna. Beren liderra, hauteskunde presidentzialetako galtzailea, Marine Le Pen noiz entzungo zain ziren. Fronte Nazionalaren XVI. Kongresua ari ziren ospatzen, porrotaren osteko hitzartze indartsua eman zuen liderrak segidan, Emmanuel Macronen En Marche mugimenduaren aurrean galdu izanaren zergatiak azaldu eta alderdia berregituratzearen beharra azpimarratu zuen.

Aurretiaz bere aita Jean-Marie Le Pen edo bere iloba Marion Maréchal Le Penek defendatutako tesietara itzultzeko bidaiari ekin zion horrela. Esan liteke Marineren Lilleko hitzartzea izan zela Europako eskuin muturraren zati batean gaur egun izaten ari den estrategia aldaketaren hasiera. Aldaketak garaipena ekarriko duela sinetsita, mugimendu

ultraeskuindarraren oinarriek berriro ere izendatu dute Le Pen hautagai aurtengo uztailean Perpignaneko ospaturiko XVII. Kongresuan.

Lillen ezarritako eraldaketa hori aski ongi aztertu du Guillermo Fernández Vázquezek *¿Qué hacer con la extrema derecha europea? El caso del Frente Nacional* liburuan, tartean mugimenduak atxiki duen izen berria: Rassemblement National (Bilgune Nazionala). Vázquezek esanetan, estrategia aldaketa atzera-egitea besterik ez da izan, Le Pen aitak defendatzen zituen aspaldiko kontsigna erreazionario eta neoliberal letara erretiratzea besterik ez da izan, horietako gehienak inoiz desagertu ez badira ere. 2017ko kanpaina erabiltako *Au nom du peuple* (herriaren izenean) esloganaren ardatzak ziren Europar Batasunaren aurkako jarrera eta langileen aldeko aldarri populistak

lurperatzeko ere balio izan zuen Lilleko kongresuak.

Norabide aldaketaren jakitun, alderdia uzten lehena Florian Philippot izan zen, liderraren eskukoa, ordura arte Marine Le Pen Eliseora eraman behar zuen estrategia nazional-subiranistaren arkitektoa. Bilgune Nazionala utzi ostean, Frantziako Gobernuaren aginduz desegin berri duten Génération Identitaire talde ultraeskuindarraren zenbait ekimenetan parte hartu izan du.

2022KO PRESIDENTZIALAK: LILLEKO PARADOXA

Formula berria betiko xenofobiaz eta neoliberalismoz makilatua da. Etorriak jomugan jarrita, baina klase ertainaren aurrean beste aurpegi batekin agertu nahi du alderdiak. Norabide aldaketak eskuin klasikoa ordezkaten



duen Les Républicains alderdiaren oinarri sozialera gerturatu du mugimendua.

Hori berretsi zuen Electograph etxeak maiatzean argitaratu duen azken inkestak. Bigarren bueltan Macron gailenduko litzateke bozken %53 jasota, eta Le Penek %47 jasoko luke. Maiatzean, beraz, ultraeskuina inoiz baino gertuago zen Eliseotik. Estrategia berriarekin aita indartsurik gabe zegoen errepublikanismoa bereganatzeko ekimenean ziharduten. Udarekin batera baina, jokalekua berriz aldatu da beren kalterako. Paradoxa badirudi ere, Le Penek irentsi nahi zuen eskuin klasikoa (Les Républicains alderdiaren babesa duten zerrendak) gailendu da Frantzia metropolitanoko zazpi erregiotan ekaineko hauteskunde departametaletan.

Abstentzioak baldintzatutakoak izan badira ere (ia %70 erregio guztie-

tan), pandemia eta jaka horien moduko protestak tarteko, argi geratu da Emmanuel Macron elektoraliki jada ez dela hain indartsua. Orain arteko kalkulu guztiak aldatu ditzakeen jazoera baina, Lille hiriburu duen Frantzia Garaia eskualdean gertatu da. Bilgune Nazionalak oso emaitza onak espero bazituen ere, Xavier Bertrand errepublikarrak ukan du garaipena.

Garaipenak hurrengo urteko hauteskunde presidentzialetan errepublikarren hautagai bihurtzera katapultatuz dezaie Bertrand. Alderdiaren primarioetan zer gertatuko den jakin gabe, errepublikarrak bigarren bueltan sartzeko aukera ireki du horrek. Albiste txarra mezua birkokatu duen Le Penentzat, ez du gobernuaren aurkako ezinegonak kapitalizatzerik lortu, ezta historikoki bere gotorlekuak izan diren esparru askotan ere.

Ahul zen errepublikanismoa fenixa

bezala birsortu daitekeen honetan, ez ote da Marine Le Penen erretirada gehiegizkoa izan? Bertrandek mamuak hautsak harrotuko ditu, Paris konkistatzeko eskuin muturraren enegarren saiakera zapuztu baitezake. Europa Elects etxeak ekainaren 29tik uztailearen 2ra bitartean eginiko inkestan, Bertrand oso indartsu ageri da.

SALVINI ETA BERLUSCONIREN AMODIOA: LEGAREN ERRETIRADA NEURTUA

Frantziako Bilgune Nazionalaren antzera ari da aldatzen Italiako Lega. 2020an Toscana eta Emilia Romagnako (ezkerrearen gotorlekuak) hauteskunde erre-gionaletan langileen aldeko eta Europaren aurkako esloganek, gutxiatik izanik ere, ez zioten garaipena lortzeko balio izan. Bi porrot horien ostean hasi zen Salviniaren alderdiaren ihesaldia.





Silvio Berlusconi eta Matteo Salvini, 2019ko ekitaldi batean.

Humberto Bossi mugimenduaren sortzaile karismatikoaren postulatu naturaletara ari da itzultzen alderdia. Europaren aurkako bandera alboratu du eta tesi liberalak are gehiago indartzeaz gain, beti presente izan duten xenofobia zabaltzen jarraitzen dute. Egungo diskurtso arrazistekin Italia hegoaldeko herritarrak seinalatu beharrean, migratzaile eta errefuxiatuak dituzte jomuga.

Badirudi Italiako Barne ministro ohia jarrera posibilitagotara bultzatu dutela Italiako egoerak eta estatuko lobbyek, Mario Draghi buru duen batasun nazionalako gobernuari emandako babesak lekuko. Zentrorako estrategia aldaketak, baina, lehiakide historiko bat indartzea ekarri du: Giorgia Meloni buru duen Fratelli d'Italia alderdia, faxismoaren nostalgikoen alderdia Erroman eta hegoaldean.

Meloniren mehatxuaren aurrean Salvini urruntzeko erabakia hartu du eta Berlusconiaren atea jo. Milango bi buruzagien amodio istorioa denbora gutxiren buruan publiko egin daitekeela idatzi du Ismael Monzón kazetari espainiarrak Erromatik. Emmanuele Lauria kazetari italiarraren esanetan, ForzaLege izena hartuko luke esperimentuak.

Le Penek bezala, erroetarako bidea hartu dute 1990. hamarkadan anaia bikia izan zenarekin elkartuz eta, posible den heinean, berau irentsiz.

HELBURU BERA: ESKUIN TRADIZIONALAREN LEKUA HARTZEA

Mugimendu hauek iradokitzen dute Lilien martxan jarritako erretirada planifikatuaren helburua dela oposizioan higituta eta erreferente ideologiko argirik gabe dagoen eskuin klasiko europarra irenstea. Aurretik, hori ezinezko ikusten zenean, globalizazioaren eta establishment-aren aurkako diskurtso faltsua garatu zuten. Azken gertakarien gainetik, helburu hori lortzeko Erromarako martxa propioa egingo du bakoitzak.

Horretarako ezinbestekoak dira Marion Marechal Le Penek zuzentzen duen eta Madrilen egoitza duen Institut De Sciences Sociales Économiques gisako espazioak. Elkarrekin konspiratzen dute han eskuin muturraren askotariko adarren harrobiek, pandemiak eragindako krisi sozialaren aurrean alternatiba kontserbadore bakar gisa aurkezteko desira horretan.

ALEMANIA ESKUIN MUTURRAREN PORROTAREN SINBOLO

Angela Merkelen agurra badator Alemaniara. Bera ordezkatzeko urtarrilean CDU alderdiak ospaturiko hauteskunde primarioetan Armin Laschet gailendu zen eta berarekin batera Merkelen pragmatismoa eta zentrorako joera. Garai-penaren ostean, CDUk mugimendu ultraeskuindarra ordezkatzen duen AFD alderditik urruntzen jarraitu du, primarioak galdu zituen Friedrich Merzen asmoen aurka.

Irailean egingo diren hauteskudeetan Armin Lascheten balizko garaipena, erreferente faltan den Europako eskuin liberalarentzat inspirazio iturri izan daiteke. Bitartean Merkelek, Annegret Kramp-Karrenbauerren laguntzarekin, AFDri ezarritako hesia emaitzak ematen ari da. Frantzian eta Italian ez bezala, hauteskundeak gerturatzen diren heinean ari da ahultzen AFD.

Egun Laschetentzat gainditu beharreko arerioa inkestetan oso indartsu ageri den alderdi berde liberala litzateke. Iraileko emaitzen ostean koalizio handiaren figura errepikatuta, alderdi berdearekin batasun gobernu sor liteke, Merkelek SPDko sozialdemokratekin egin zuen bezala. ●

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



Shocketik porrotera 20 urte ondoren

Naomi Kleinek *The Shock Doctrine* liburuan azaltzen zuen hondamendietatik eta kontingentzietatik sortutako shock psikologikoen erabilpena ezinbestekoa izan zela jendeak nahi ez dituen politika neoliberalak hedatzeko; izan tsunamiak, urakanak edo gerrak, haiek eragindako hondamendia eta nahasmena baliatu ziren erreforma ekonomiko basatiak egiteko. Nazioarteko politikan ere gauzek antzera funtzionatzen dute. 2001eko irailaren 11ko atentatuek sortu zuten shocka aitzakia bilakatu ziren AEBetako belatz inperialistek aspalditik zuten plana gauzatzeko.



Sobietar Batasuna erori ostean AEBek hegemonia handia zuten munduan eta horri esker beren eragina zabaldu eta handitzen zuten, merkatu berriak irekiz eta bere armada planeta osoan barreiatuz. Mendebaldeko herrialdeentzat globalizazioaren eta neoliberalismoaren urte zoriontsuak izan ziren, garapen bidean zeuden herrialdeentzat infernua.

Halere, AEBen hegemonia ez zen absolutua. Mendebaldeak eskualde eta herrialde batzuetako merkatuetan eta lehengaien ustiaketan sarbide zaila zuen. Alde batetik, lehiakide gogorrak zituelako –hamarkadetako hegemonia alternatiboen ondarea– eta, bestaldek, herrialde batzuetan politika soberanistak mantentzen zirelako. Errealitate hori aldatzeko Washingtongo belatzeek bazekiten denbora mugatua zutela. Paul Wolfowitzek, politika militarerako AEBetako Defentsa idazkariordeak, 1991n Wesley Clark jeneralari esan zion hurrengo superpotentzia agertu aurretik, bost-hamar urte baino ez zituztela beraien esanetara ez zeuden erregimenak deuseztatzeko.

Arazoa zen 1990eko hamarkadan AEBek 1945ean erditu eta ia mende erdiz hazi zuten nazioarteko ordena zegoela indarrean. Horrek, *neoconen* ikuspegitik, alkondara hertsagarri bezala funtzionatzen zuen AEBentzat; herrialdeak gaitasun militar erraldoia zuen bere hegemonia zabaltzeko prozesua azkartzeko, baina nazioarteko legediek mantsotu egiten zuten abiadura. Washingtonen sentsibilitate politiko gehienek garbi zuten alkondara hori hautsi egin behar zela, epeak ziren eztabaidagai. Azkar egiteak nazioarteko legediaren kontrako bortxaren erabilera masiboa eskatzen zuen eta horrek AEBen nazioarteko prestigioa higatu eta etxeko iritzi publikoaren eta zenbait aliaturen babesba oztopa zezakeen.

Etxe Zuriak erritmo mantsoan jarraitzea beste biderik ez zuen izan, nahiz eta abiadura azkartu nahi zuten *neoconen* agenda partekatu. Bill Clintonen bultzadaz, NATOk zabalkunde handiena izan zuen. Erakundearen helburuak aldatu zituzten eta defentsarako aliantza izatek erasorako tresna ere bilakatu zuten. Aldaketa hori egin aurretik, 1995ean Bosnia-Herzegovinako gerran bere araudiak ahalbidetzen ez zuen eskuhartze militarra burutu zuen lehenengo eta ondoren, 1999an, Aliantza Atlantikoak erasorako doktrina berria erabili zuen



Jugoslavia bonbardatzeko nazioarteko legedia hautsiz. XXI. mendeko inperialismoaren aurpegi berria zen, orain gerrak eskuhartze humanitarioak dira, “demokrazia eta giza eskubideak” babestu eta zabaltzeko (sic), garai batean “kristautasuna eta modernizazioa” hedatzeko zirenen moduan.

Jugoslaviakoa eskuhartzea mugatua izan zen formatan eta denboran, hori onargarria izan zitekeen Mendebaldeko iritzi publikoarentzat marko komunikatibo egokia eraikita, etsaiak deabrutuz eta gerra deklaraziorik egin gabe. Baina prest ote zegoen iritzi publikoa gerra egoera iraunkor baterako? Operazio militar eta inbasio masiboetarako? Nekez, World Trade Center-aren kontrako atentaturik izan ez balitz. Atentatuen shocka baliatuta, belatzeek azkenean aurkitu zuten aukera paregabea. 2001ean Washingtonek terrorismoaren kontrako gerra deklaratu zuen eta orduan Clark jeneralari esan zioten bost urteren buruan mendeen hartu behar zituztela ondorengo zazpi herrialdeak: Afganistan, Irak, Somalia, Sudan, Libano, Siria eta Iran.

Ez ziren bost urte izan eta ez dira soilik zazpi herrialde izan. Besteak beste, Pakistanek eta Yemenek ere AEBetako armadaren operazioak sufritu dituzte. Hasierako zerrendatik libratu den baka-

rra Iran da, nahiz eta zeharka eraso militar ugari jaso dituen Sirian eta Iraken, praktikan ia gerra egoeran utzita, blokeo eta zigor ekonomiko bortitzen eraginez.

Azken hogeit urteetan AEBek ez dute bakarrik mailu militarra erabili, mailu ekonomikoari ere indartsu eragin diote. Gogoratu behar da nazioarteko zigorrak jartzeko eskuduntza duen erakunde bakarra NBE dela eta beraz, Washingtonek hainbeste maite duen aldebakarreko zigorren politikak nazioarteko legedia hausten du. Halere, zigorturiko herrialdeen zerrenda luzea da oso.

Eraso ekonomikoek eta militarrek helburu bera dute: Washingtonek etsai izendatu dituen erregimenetan aldaketa sustatzea. Beste kasu batzuetan, erregimena aldatu nahi ez baina gobernua gustuko ez duenean, estrategia bigunagoak bideratu ditu hedabideen, fundazioen, GKE-en eta, oro har, gizarte zibilairen kooptazio eta erabilpenaren bitartez estatu kolpe bigunak emateko.

Sobietarren espazio ohian aliatuak zituen Washingtonek kontrol handiagoa izateko, eta han Moskuk zuen eragin txikia erabat desagerrarazteko Koloretako iraultzen estrategia kolpista jarri zuen martxan. Ondoren, tresna hau Latinoamerikan ere erabili du, egokituta, izan ere, gizarte zibilairen erabiltzeaz gain, aliatu asko zuen Washingtonek hain-

bat herrialdetako botere aparatuetan. Horien bitartez bideratu ditu gobernu suberanisten kontrako gerra judiziala (*lawfare*) eta estatu kolpeak.

Koloretako iraultzen estrategia Iparaldeko Afrikara eta Ekialde Hurbilera esportatu zen *Udaberri arabiarren* bitartez. Arrakasta, baina, mugatua izan zen estatu kolpe leunek Mendebaldeko aliatuak diren erregimenetan funtzionatzen dutelako soilik. Halere, oso erabilgarriak izan ziren Washingtonek eraso egin eta aldarazi nahi zituen erregimenak eze-gonkortu, oposizioak armatu eta zuzeneko edo zeharkako gerra egiteko, eskuhartze humanitarioen aitzakia pean.

Congressional Research Service-k eman dituen datuen arabera, 1775etik gaur egun arte 246 urteetatik 225 urtetan egin du operazio militarren bat AEBeko armadak; soilik 21 urtetan ez dute eskuhartze militarrik egin. Ofizialki gerran egotea beste gauza bat da ordea, XX. mendetik AEBek sei gerra-deklarazio egin ditu: I eta II Mundu Gerrak, Korea, Vietnam, 1990eko Golkoko Gerra eta 2001etik terrorismoaren kontrako gerra iraunkorra. Vietnamgo salbuespena alde batera utzia, gainontzeko gerretan partaidetza laburra izan zen. Berritasuna 2001ean etorri zen, AEBek ofizialki gerran 20 urte daramatzate jarraian eta epe horretan agertu duen portaera harroputza izan da beren herriarrekiko eta munduarekiko.

Edward Snowden-ek eta Wikileaks-ek filtraturiko dokumentuei esker eza-gutu dugu *terrorismoaren kontrako gerran* AEBetako armadak burutu dituen krimenetako batzuen xehetasunak eta, halaber, jakin dugu AEBek mundu guztia zelatatzen duela, estatubatuarrak eta bere aliatuak barne.

Etxean AEBek lasaitasun osoz esku-bide zibilen etendura eta murrizketak onartzen bazituzten, atzerrian erakunde kriminalaren jokabidea zuen: pertsonak bahitu, legez kanpoko hegaldietan sartu eta munduan zehar sakabanatutako CIAren atxiloteta-gune klandestinoetan sarraraziz. Gune horiek "Guantanamo" txikien sare bat osatzen zuten, non bahituek AEBetako ordenamendu juridikoaren eta nazioarteko itunen babesik eta bermerik gabe, besteak beste, torturatuak izan zitezkeen. Lehenengo zentroa AEBek Kuban duten Guantanamo base militarrean ireki zuten 2002an eta egun irekita dago oraindik.

Atxiloteta ilegalak egon diren moduan, erailketa ilegalak ere bai. Mun-

duko potentziek noizbehinka ezkutuko operazioak egiten dituzte beraien mugeetatik kanpo etsaiak atxilotzeko edo hiltzeko, baina operazio horiek legez kanpokoak direnez, herrialdeek sekretupean mantendu eta beraien ardura ukatu egin dute. Azken hoge urteetan berriz, Washingtonek tradizioa hautsi du beste herrialde batzuetan legez kanpo burutzen dituen exekuzioetako batzuk lau haizeetara aineratuz harrotasunez. Horren adibide dira Osama Bin Landen erailketa Pakistanen edo Qasem Soleimani jeneralarena Iraken.

Baina hainbeste bonba, odol, hildako eta tortura zertarako balio izan dute? Ez da izan giza eskubideen eta demokraziaren defentsagatik, ezta AEBen hegemonia indartzeko ere. Kontrara, bi hamarkada hauetan industria militarra asko aberastu den bitartean, segurtasun eta armada pribatuen enpresek diru publikoarekin negozio handia egin dute, AEB ahulduz joan dira etengabe.

Historiako hegemonia aldaketetan azken 500 urteko trantsiziorik garrantzitsuenaren aurrean gaude

Estatu Batuentzat eta NATOrentzat zaila zen imajinatzea umiliazio handiago eta sinbolikoagorik Afganistango erabateko porrota baino; Vietnamgo irudiak errepikatuz, enbaxadatik ihes eginez helikopteroan modu baldar, koldar eta desordenatuan. Hori gutxi baltiz, gainera, hilabete lehenago AEBetako presidenteak prentsaurreko batean iragarri zuen 2021eko irailaren 11rako aterako zituztela tropa guztiak Afganistandik. Horrez gain, behin eta berriro errepikatu zuen ez zela gertatuko gertatu dena. Azkenean, ezin eutsirik edo, aurtengo abuztuaren erdialdean AEBetako armada korrika eta presaka atera zen, albotz kalteez arduratu gabe eta NATOko bere

aliatuekin erabakia partekatu eta koordinatu gabe; ondorioen kudeaketa zaila laguntzako opari bilakatuta, nagusiki Europar Batasuneko herrialdeentzat.

Inperioa gure begien aurrean poliki, baina ari da jausten. Ez arlo militarrean soilik, ekonomikoan ere bai. XXI. mende hasieran munduko herrialdeen hiru laurden baino gehiagok AEB zuten lehen merkataritza bazkidea. Hoge urte eta gero panorama oso bestelakoa da. Herrialdeen hiru laurden baino gehiagoren lehen merkataritza bazkidea Txina da eta munduko BPGari begiratzen badiogu bigarrena, baina eros-ahalmena kontuan hartuta Txina lehenengoa da jada.

Historiako hegemonia aldaketetan duela 500 urteko trantsiziorik garrantzitsuenaren aurrean gaude. Hegemonia berria ez da izango Mendebaldeko herrialde liberal bat. Sozialismoa eraikitzeko borondatea duen Asiako kultur-zibilizazio bat da Txina, nahiz eta bitartean merkatuak eta globalizazioa laguntzeko prest agertzen den etengabe. Hori bai, herrialde askorekin duen harremana ez da bortxa, gerra eta inposizioaren bidez bideratzen, baizik eta interes komunak bilatuz, akordioak sustatuz eta merkataritza eta garapen ekonomikoa bultzatuz. Beraz, kapitalismoa eta globalizazio ez dira hil, oso bizirik daude, kontua da ez direla pilotatzen ari Washingtonen eta Bruselan, baizik eta Beijingen. Adibiderik garbiena da Txinak bultzatzen duen Zeta bide berria, *Belt and Road Initiative*, munduko merkataritza bultzatzeko ekimen handiena.

Hegemonia trantsizioa noiz bukatuko den jakitea zaila da, baina argi dago bizi dugun COVID-19aren pandemia egotzarak azkartu egingo duela prozesua. Historian izan dugun lehenengo gertakari globala bizitzen ari gara, inoiz ez da izan tamainako gertakaririk mundu guztiari eragiten diona. Gerra handiek influentzia handia izan bazuten ere herrialde askotako egunerokotasunean ez zuten eraginik izan. Orain aldez, COVID-19ak ez du apenas utzi munduko bazter bat bera ere pandemiaren eragina pairatu gabe. Bizi dugun shocka sekulakoa da eta Branko Milanovic ekonomialariak azaldu duen bezala, aldaketa politikoak ekarriko ditu. 2008ko finantza krisiak ez zituen aldaketak eragin bi urte pasa arte, bada, berdina gerta daiteke COVID-19arekin eta oraingoan, aldaketek inpaktu berezia izan dezakete nazioarteko politikan. ●

“ ”

Bi aukera daude: jarraitu pentsatzen erdigunean gaudela edo ertzetakoekin batera lan egin

Txerra Rodriguez, euskara elkarteek

la 400 orrialdeko tesia ondu du Txerra Rodriguezek. 2020ko martxoan bukatua zuen lana: *30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017*. Elkarrizketa honetan mugimendu sozialaren eta egitura profesionalaren arteko uztarketa zailaz aritu da, baita beste mugimendu sozialak zertan ari diren begiratzeko premia eta euskara elkarteetako kideek transmititu dioten nekeaz. Dena den, aurrera egiteko ilusioa badaukatela uste du.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  HODEI TORRES

Zertarako sortu ziren euskara elkarteak?

Horrela dago idatzita: euskaldunon komunitatea trinkotzeko. Euskara elkarteak Txepetxen [José María Sánchez Carrión] teoriak modu batera edo bestera baldintzatuta sortu ziren. Hasieran asko erabiltzen zen lelo modukoa hau zen: 'Batzen gaituena gehiago da banatzen gaituena baino'. Filosofia horren baitan sortu ziren.

Zer esan nahi zuten 'komunitatea trinkotu' ziotenean?

Hori da tesiaren ondorioetako bat. 30 urteren bueltan euskara elkarteek ez dute definitu euskaldunon komunitatea trinkotzeak zer dakarren. Tesian

gauza batzuk landu ditut eta hiru bloke nagusitara ekarri dut trinkotzearen kontua. Bat: autoeratzea. Euskaldun hutsez osatutako elkarteak dira, euskaraz funtzionatu izan dute eta hiztun osoak izan dituzte jopuntuan. Bi: hasieratik eta gaur egunera arte jardun dute modu performatiboan, espero zuten etorkizuneko gizartea gaurtik egitearen filosofiatik. Hiru: diskurtsoa; ea diskurtso propio eta burujabea egiteko kapazitatea izan duten ala ez. Elkarrizketatuen artean ez dago adostasunik. Batzuek esaten dute diskurtsoa eratu dutela eta beste batzuek diote ez direla heldu diskurtso oso bat eratzerara. Alabaina, batzuek zein besteek esaten dutena da, eratu ala ez eratu, diskur-

tsua gizarteratzeko gaitasunik ez dutela izan.

Hori da trinkotzearen inguruan egiten dudana irakurketa. Nire ustez, ez da definitu zer den trinkotzea eta helburua jarri da oso ondo jakin barik zer den hori.

Agian galdera zaila da ondokoa, zuk esan baituzu helburua ez zegoela argi baina... Helburua lortu da?

Trinkotzean eragin mugatua lortu dute. Hasieran batzuk hasi ziren trinkotzerantz hurbiltzen, baina urteak aurrera pasa ahala apur bat lausotu edo urardotu da ideia hori. Hala ere, nahiz eta hasieran elkarteek aitortu ez, bigarren helburu nagusi bat izan dute: euskararen erabilera sustatzea. Ulertu zuten



“Komunitatea trinkotzea eta erabilera sustatzea oso helburu handiak dira, eta salbuespenak salbuespen, elkarteek eratu dituzten militantzia eta lan egituretatik horietara heltzea ezinezkoa zen”.

erabilera dela hizkuntza baten biziberritzearen adierazle nagusienetako bat. Ez dakit zein puntura arte lortu duten, kontuan hartuta azken urteotan erabilera gelditu dela edo behera egin duela, baina elkarteek eratu dituzte bidezidorrak erakusteko bizitzaren esparru bazueta posible dela euskaraz bizitzea.

80ko hamarkada bukaeran eta 90eko hasieran jarritako helburuetatik, seguruenik, oso urrun daude elkarten lor-

penak. Hala ere, uste dut elkarteek eratu dituzten mekanismoekin askoz gehiago ezin zitekeela lortu. Komunitatea trinkotzea eta erabilera sustatzea oso helburu handiak dira eta salbuespenak salbuespen, elkarteek eratu dituzten militantzia eta lan egituretatik horietara heltzea ezinezkoa zen.

Tesian 'ametsa' hitza agertzen da. Amets egin behar da?

Jakina. Bateren batek esan diezadake irakurketa ezkor samarra egin dudala. Elkarrizketatu ia guztiek esan didate horrelako zerbait: "Agian ez gara heldu amesten genuen horretara, baina zelakoa izango zen euskararen egoera elkarteak egon ez balira?".

Elkarteak nekatuta daude?

Nik esango nuke baietz. Dena den, ez dakit neke hori ez ote den orokorragoa, euskalgintza osoa ez ote dagoen nekatuta. Urte askoan jardun dute elkarteek, emaitza politak lortu dituzte, egituraketa maila indartsua lortu dute hainbat herritan... Baina orokorrean nekea nabari da. Aurrera jotzeko zailtasunak eta oztopoak daude, batzuk saiatu arren ez dira gaingitu. Era berean, salbuespenak salbuespen, oraindik aurrera egiteko ilusioa badaukatela uste dut.

“ ”

Elkarteetan langileak izateak aje batzuk ditu eta ez izateak beste batzuk

Mugimendu sozialaren eta egitura profesionalaren arteko uztarketa posible da? Eraginkorra al da molde hori?

Ez nuke jakingo erantzuten molde eraginkorra den ala ez. Elkarteek eta kasu honetan euskalgintza osoak askatu beharreko korapiloa izan da, da eta izango da.

2010-2011ko kongresuan mugimendu sozialetara hurbiltzeko hautua egin zuten; ez dakit zein puntura arte bete den. Oreka oso zaila da. Ez dakit ekonomia sozialetik etor daitezkeen erantzunak edo mugimendu sozialetatik, baina probatzea eta gauza asko kontuan hartzea eskatzen duen kontua da.

30 urteren ondoren egiten dudak irakurketa da, gurean oso ohikoa den bezala, mutur batetik besterako saltoa egiten saiatu garela. Hasieran egitura militantea sortu zuten, gero seguruenik elkarte guztiek izan dute anbizioa langileak izateko. Zer gertatu da? Askotan gurean gertatzen dena: "Langileak ditugu, horiek egin dezatela lan". Ahaztu

da elkarteetan bi egiturak beharrezkoak direla. Badaude elkarte indartsuak langile egitura handia daukatenak, baina atzean ez dago inor. Bestalde, badira egitura profesionala berariaz hartu nahi ez duten elkarteak. Ez nuke esango batzuk edo besteak ondo edo txarto dabilzanik. Elkartearen filosofiarekin bat datorren heinean, uste dut tokian toki hartu beharreko erabakia dela. Langileak izateak aje batzuk ditu eta ez izateak beste batzuk.

Elkarteen menpekotasun ekonomikoaz eta politikoaz aritu zara tesian. Diru sarrera nagusia udal bidezkoa izateak horra eraman ditzake. Elkarrekin kritika eta salaketa bigarren mailan utzi dute menpekotasun horregatik?

Elkarrekin, hasieran, autonomia ekonomikoa eta politikoa errebindikatzen zuten. Egitura profesionala daukazu heinean ordea, diru sarrera batzuk behar dituzue derrigor. Lehenengo langileak tokiko hedabideetakoak izan ziren eta elkarrekin aldizkariak doan izatearen aldeko apustua egin zuten. Beraz, diru iturri propioak izateko arazo handiak zituzten. Aukera bakarra dirulaguntzen bidez sarrera iturri finkoak izatea zen eta horrek autonomia ekonomikoa galtzea dakar argi eta garbi. Horrek gauza batzuk kamustu ditzake, ez dauka zertan, baina azken finean dirua ematen duenaren menpe egon zaitezke.

Menpekotasun ekonomikoak salaketarako grina apur bat apaltzea eragiten du, baina uste dut elkarrekin badagoela adostasunaren inguruko filosofia bat. Hasieran aipatu dizudan leloa hor dago: 'Batzen gaituena gehiago da banatzen gaituena baino'. Elkarrekin hasieratik izan dute joera salaketa-kritika-protesta egiteko, baina sukalde lanetik. Kalera irten baino lehenago adostasuna bilatu, historikoa izan da eta orain ere jarraitzen du hein batean.

Menpekotasun ekonomikoak eragina dauka, baina adostasunaren filosofiak ere eragina dauka eta batzuei ahaztu egiten zaie. Biak maneiatu behar dira, maila nazionalen beste modu batera izan daiteke, baina herrietan sukalde lanak badu zentzua.

Beste mugimendu sozialetan bestelako militatze ereduak ari dira probatzen. Euskara elkarrekin ere testuinguru berrira

moldatzeko beharra dutela diozu. Ari dira egokitzen? Hil ala bizikoa da militantzia eredu berrietara egokitzea?

Ez dakit hil ala bizikoa den. Beharrezkoa da. Nik zalantzak ditut, baina elkarriketatatu denek aipatu dute errelebo falta, izerdi eta odol berriaren beharra dela arazo nagusienetarikoa. Bada, hori bada elkarrekin arazo handienetakoa ondoko mugimenduetan militantziari dagokionez zer egosten ari diren begiratu behar da eta ahal den neurrian gurera ekarri.

Uste dut, eta beste behin ez dakit elkarrekitarako ala euskalgintza osorako den, militantzia gorputzetik gehiago pasa behar dugula. Batzuetan euskalgintzatik oso modu kognitiboan nahi dugu landu militantzia. Tripetatik, bihotzetik, errailetatik... pasa behar da gehiago. Era berean, gorputzetik pasatzeak ekarri beharko luke militantzia horrek geuri zerbait ematea, gure bizitzari ekarpen bat egitea.

“ ”

Elkarrekin hasieratik izan dute joera salaketa eta kritikarako, baina sukalde lanetik

Beste mugimendu sozialetan horren bila ari dira, batzuetan lortu da eta beste batzuetan lortuko da, adibidez, ekologismoan.

Ertzetako borroka eta askapen prozesuetatik ikasi beharko luketela diozu eta ahal bada aliantzak egiten hasi. Printza batzuk ikusten dira. Zer ikusten duzu zuk?

Bai, printza batzuk ari dira ikusten. Euskalgintzaren eta ekonomia sozialaren bigarren topaketak antolatzen zituen UEUK, *Jakin* aldizkariak desazkunderen inguruan antolatutako jardunaldiak ere izan dira. Euskalgintzaren eta feminismoaren arteko aliantzatxo batzuk ari dira josten hemendik eta handik.

Praktikan bidetxo batzuk lantzen ari gara. Dena den, kontzeptualizazio globalagoa falta da, hala nola, esatea "hizkuntza gutxituen defentsa bioaniztasunaren defentsa da" edo "hizkuntza gutxituen defentsa feminismoaren aldeko borroka da". Dekolonizaziotik ere asko daukagu ikasteko, barne eta kanpo kolonizazioetatik.

Euskaraz bizitzearen aldeko hautua egin dugunok ertzetan gaude. Bi aukera daukagu: ertzetikoei begiratu ez eta jarraitu pentsatzen erdigunean gaudela edo ertzetikoei begiratu eta eurekin batera igurtzi, nahastu, eta elkarrekin lan egin. Bigarren hori da bidea.


Elkarrekin erotikoagoak izaten saiatu beharko luketela diozu. Azaldu mesedez zer esan nahi duen 'erotikoagoak' horrek.

Ez dauka zerikusirik erotismoarekin, zerikusia dauka erakargarritasunarekin. 20 urteko gazte bat elkartera hurbiltzen baldin bada zer dauka elkarrekin eskaintzeko? Elkarrekin erakargarriagoak izan behar dira, eta orokorrean, diskurtsoan, praktikan, badago zer landua, asko gainera.

Tesian argi agertzen da elkarrekin erreleboarekin kezkatuta daudela.

Lehen esan dut elkarrekin gehien kezka nagusienetakoa dela. Sarri, euskalgintzatik eta elkarrekin mugimendutik esaten denean asko ikasi behar dugula feminismitik, gehien gogoeta da ez horrenbeste feminismoaren kontzeptu batzuk gure praktikan txertatzea ez bada, "horiek zelaz lortu dute horrenbeste neska gazte mobilizatzea, militatzen hastea, eta guk ez?". Horrela begiratzea da galdetzea bezala zergatik Zamudiokoek herri sarreran daukaten halako eskultura eta Deriokook ez daukagun ezer. Jarraitu ahal dugu begiratzeko eta gure buruari galdetzen, baina horrela ez dugu ezer lortuko. Atzean dagoenari begiratu behar diogu, zergatxei, ez horrenbeste ondorioei. Beste batzuen ekarpenak txertatuta, baina euskalgintzak eta elkarrekin mugimenduak bere bidea landu beharko lukete.

Azken urteotan euskara elkarrekin gaituena herri-aktibazioa egon da. Hasi Egia auzoko (Donostia) ekimenetik eta Euskaraldira. Zer azpimarratuko zenuke ekimen horietatik?



Ez naiz hasiko Euskaraldiaren balorazioa egiten, baina bi gauza nabarmenduko nituzke. Batetik, Euskal Herriko ia herri guztiek parte hartu duten ekimen bakarrenetakoa da. Mapa osoa estali da ia eta ez diogu behar besteko garrantzia eman. Elkarteen mugimenduaren nahi historiko bati erantzuten dio: mapa estaltzea. Bestetik, elkarteen mugimendutik begiratuta, Euskaraldiko batzordeek bestelako antolaketa moduei ireki diete bidea. Hortik ere badute zer ikasia elkarreek. Hala ere, ez dut uste Euskaraldiko batzorde batek elkarre baten lana egin dezakeenik, elkarreek askoz esparru zabalagoa landu beharko lukete eta lantzen dute.

Euskara elkarreak Topagunean biltzen dira. Nolako izan beharko luke bien arteko harremanak?

Topaguneak badauka ezaugarri bat oso erakunde gutxik daukana: lehenengo herrietako taldeak sortu ziren eta gero sortu zen Topagunea. 2011ra

arte behintzat, herrietako elkarreek gidatu zuten Topagunea. 2010-2011 urteetan, hausnarketa prozesua egin zenean, elkarteen mugimenduak bes-


“ ”

Elkarteen mugimendua ez da Topagunea beste indartu eta horrek atrofia bat ekarri duela uste dut

telako funtzioak eman zizkion Topaguneari, gidaritzara, ordezkarietara, eta abar. Zer gertatu da urteen poderioz?

Topagunearen egitura urterik urte sendotzen joan da. Aldiz, 2011ra arte elkarteen kopurua gorantz joan zen, hortik aurrera beherantz egin du eta azken urteotan lautadan dago. Elkarteen mugimendua ez da Topagunea beste indartu eta horrek atrofia bat ekarri duela uste dut.

Zein izan beharko litzateke elkarteen eta Topagunearen arteko harremana? Ez dakit. Hori ere landu beharko litzatekeen kontua da, baina uste dut batzuetan oinarrietara bueltatzea txarra ez dela. Topaguneak ulertu behar du, eta uste dut ulertzen duela, hartu beharko lukeen funtzio nagusienetakoa dela elkartegintza indartzea. Lan oso gaitza da. Egitura nazional batetik joan Urrietara edo Zornotzara eta elkartegintza sustatu. Zer gertatzen da? Zenbat eta handiagoa izan, egiturak berak gero eta lan handiagoa eskatzen du bere erreproduktzioarako. Elkartegintzara itzuli beharko litzateke. Itzultzen ari da. ●



Attica: mende erdia eta hobekuntzarik ez



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Attica (New York, AEB), 1971ko irailaren 9a. Atticako espetxeko presoak matxinatu ziren, esku-bide politikoak eta bizi-baldintza hobekuntzarako premiak bultzatuta, eta kartzela kontrolatzea lortu zuten lau egunetz. Hasierako orduetan lau hildako izan ziren: hiru preso eta zaindari bat. Matxinatuek kartzelako 42 guardia eta langile bahitu zituzten.

ARGIaren egutegiko egun horretako sarrerak dioten moduan, 1.281 izan ziren matxinatutako presoak. Une horretan 2.243 preso zeuden Attican, berrezarazteko gehienek ere 1.200entzat diseinatuta egon arren. Eta pilaketa ez zen arazo bakarra. Howard Zinn historialariak hala deskribatu zituen matxinadaren aurreko baldintzak: "Presoek eguneko 14-16 ordu ematen zituzten ziegatan, posta irakurtzen zieten eta irakurgaiak mugatu, senideen bisitak pantaila bat tarteko egiten zituzten, osasun arreta oso eskasa zen, baldintzapeko askatasun sistema bidegabea, arrazakeria edonon...". Une horretan Atticako presoek % 54 beltzak ziren – New Yorkeko estatuko beltzen populazioa %20 ingurukoa zenean– eta zuriak %37 –estatuko populazioaren %70etik gora izan arren–. Guardiari zegokienez, aldiz, bat ez beste guztiak zuriak ziren.

Hasierako negoziazioetan presoek hainbat eskakizun onartu arren, Nelson Rockefeller estatuko gobernadoreak uko egin zion matxinatuekin hitz egiteari, eta laugarren eguneko espetxearen indarrez berreskuratzeko agindua eman zuen. 39 hildako eragin zituzten erasoak: 9 bahitu eta 30 preso. Matxinada kontrolatu ondoren, kanpoan zain zeuden komunikabideei xehetasun osoz azaldu zituzten matxinatuek hildakoei egindako izugarrikeriak. Gerora jakin zen ez zela egia, hildako guztiak polizia indarrek eragin zituztela.

Presoek, borroka luze eta gogorren ondoren, 2012an lortuko zuten justiziari arrazoia ematea eta guztira 8



Atticako kartzelako presoak eskua altxatzen, matxinadan hildako 43 lagunekiko elkartasuna adierazteko.

milioi dolar jaso zituzten kalte-ordainetan. Matxinada itzali eta berehala, New Yorkeko estatuko sei neurri onartu zituzten, teoriarik, espetxeetako baldintzak hobetzeko. Praktikan ezer gutxi hobetu zen. Eta hobetutako apur hori desagertu zen hurrengo bi hamarkadatan, AEB osoan drogaren kontrako lege desorekatu eta bidegabeak indarrean jarri zirenean.

"PRESOAK ORAINDIK ETA GEHIAGO DESHUMANIZATZEA LORTU ZUTEN"

Matxinadaren garaian 12.500 preso zeuden New Yorkeko estatuan; 1999an, 72.600. Egun, AEB da munduan espetxeratutako populazio portzentaje handiena duen herrialdea, guztira 2,3 milioi pertsona. Horietatik %40 baino gehiago beltzak dira, populazio osoaren %14 besterik osatu ez arren.

2016an, Heather Ann Thompson historialariak Attican gertatutakoa xehe-

xehe jaso zuen *Blood in the Water* (Odo-la uretan) liburuan. Protagonistak eta lekukoak elkarrizketatzeaz gain, publikoak ez ziren dokumentuak aztertzeak aukera izan zuen, Buffaloko artxiboetan izandako akats administratibo bati esker. Baina Thompson ez da baikorra: "Attican eta garai berean beste espetxe batzuetan izandako matxinadak estuki lotuta zeuden eskubide zibilen aldeko mugimenduarekin. Agintarien erantzun neurrigabeak lotura hori haustea lortu zuen, iritzi publikoa aurka jartzea eta presoak oraindik eta gehiago deshumanizatzea. Badirudi, azken hamarkadan han eta hemen preso gutxi batzuk berriro hasi direla beren eskubideen alde antolatzen, baina gero ikusten duzu, adibidez, presoek egun inoiz baino denbora gehiago ematen dutela isolamenduan. Egungo baldintzak duela 50 urtekoak baino askoz okerragoak dira, Atticaren ondoren aldatu behar zena ez zelako aldatu". ●

JUAN MARI ARREGI AGURRA

Ekonomiaren jokaldiak irakurtzen irakatsi digu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Mamira jo behar dut 80 urteko historia oso baten zati txiki baten lau pintzelada ondo azaldu nahi baditut. Hainbeste dago kontatzeko. Juan Mari Arregi 'Daniel Udalaiz' agurtzea tokatu zait. Eskertzea hogeita bost urtez astekari honetan irakurleri sozioekonomia gaietz emandakoa. Erreleboa emateko garaia heldu dela eta ez duzu gehiago 'Talaian' zutabearen bere testurik irakurri ahal izaneren, irakurle.

Egin egunkariaren sortzaileetakoa 1977an, ekonomia gaietz arduratu zen frankismo ondorengo urte korapilatsu haietan. Petrolioaren lehen krisiak kolpatutako industria haserretu baten aurrean zeuden, langileen grebak eta martxak, protestak, poliziaren errepresioa, Francoren heriotza, gatazka politikoa... urte haietan izan zen Bizkaiko delegatua eta 'Laboral' izeneko sekzioaren arduradunetako bat.

ARGIAKO HASTAPENAK

Arazo politikoak zirela medio kale-ratua izan zen Egin-etik. Ordura arteko ibilbideagatik markatuta zuten antifrankista eta abertzaletzat, beste medioren batean sartzeko bidea zailduz; eta 52 urte izateak ez zituen gau-

zak errazten. ARGIAko zenbait kidek aski ezagun zituzten Daniel Udalaiz edo Antton Urrutikoetxea sinadurak eta 1995ean astekarian kolaboratzen hasteko proposamena egin zioten.

Bizpahiru orriko lanak egiten hasi zen, beti gai sozioekonomikoei lotuak. 'Txanpona' saila osatu zuen gero. Linea berberari jarraituz, 'Zer da' atala sortu zuten ondoren, astero kontzeptu ekonomiko baten definizioa eskainiz, irakurleri ekonomia gaiak ulertzen laguntzeko. 'Talaian' izan da azken saila. Hemen irakurri ahal izan duzu Juan Mari Arregi azken urteetan, astero.

Generazio berriei lekua utzi nahi die orain. Hala azaldu digu. "Oso eskertuta nago ARGIArekin, beti utzi didate askatasunez idazten; eta orain hurrengo belaunaldiei tokia uzteko unea da", dio. "Gainera, laurogei urte ditut eta asteroko zutabea osatzeak lana suposatzen du; eskatzen du gaien gainean egotea, jarraipen zorrotza egitea...", azpimarratu du. Uztaileko azken zenbakian idatzi du bere agurra.

ARGIAk duen kolaboratzaileerik zaharrenak eman dio amaiera fase honi. Ekonomiako erreferentzia izan dena urte luzez. ARGIAko lantaldeak ere esker hitzak besterik ez ditu. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Informazioa euskaraz bultzatu nahi dudalako".

Durango Roberto

"Idazten duzuenak asko asetzen nauelako, gainera, tarteka alabak ere irakurtzen harrapatu ditudalako".

Iruñeko Habene

"Euskarazko prentsa (ia bakarrik) kontsumitzen dut. Aspaldi egin behar nuen harpidetza hau; oso berandu nabil".

Lazkaoko Joxemai

"Euskaraz delako. Euskal Herriko ikuspegia duelako, ezkertiar eta euskaltzalea. Beste komunikabideetan lantzen ez diren gaiak jorrotzen dituelako. Independentea delako. Herrikit sortutakoa delako. Ikerketa kazetaritza bultzatzen delako. Aniztasuna aldarrikatzen duelako. Pentsaera kritikoa ereiten duelako (...) Une honetan (auskalo bihar), esfortzu handia eginda ere, ekonomikoki aportatu dezakedalako...".

Hernaniko Aritz



TIPULA KORDAN EUSKAL HERRIA ALDENIK ALDE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Mina da mina, ez da piparra; gonak dauzka eta ez da andrea; bizarrak dauzka eta ez da gizona". Kandido Izagirre fraideak jasotako asmakizun bat da. Erantzuna berak dioen bezala: kipulia. Tipula edo uinua, *Allium cepa*, oraintxe ari da makurtzen. Lur azalean erdia lurpean eta erdia bixtan hazi den buruaren gainean hosto motots tentea du tipulak, eta hazkundera gelditzen denean motots hori etzan egiten da edo tontortu; tontortu edo garatu, zakildu, zildu, loretu, lilitu, ernamuindu, kukulatu, morronkatu, tipula-morroiloa edo tipula-morriona eman, goiti joan, muskildu, hozitu, buzandu, gogortu, pirukatu, burutu, ziritu... Tipulak buruan bildu eta antolatu dituen erresalbuak eta gordekinak ez dira gure marmitakoak eta ajoarrieroak gozatzeko; lorea, fruitua eta hazia eman eta bere kastaren etorkizuna kateatzeko baizik. Garatze hori eragozteko berez etzan ez diren hosto sortak zenbaitek hankapean zanpatu eta makurtzen dituzte.

Uztailaren amaian eta abuztuaren hasieran, udaren beroenean, jasotzen da gordetipula. Lurretik atera eta eguzkitan utzi lur gainean bertan edo toki lehor eta haizeztatu batean. Lehortutakoan lur hondarrak astindu, behar bezala kontserbatzeko garrantzitsua da, lurrak hezetasuna erraz hartzen baitu eta tipula burua ustel dezake. Sustrai eta hosto iharren muturrak moztu eta zintzilikatzeko kordan txirikordatu. Korda edo sorta, soka, haria, txorta, txirikorda, zarta, oko, sarta, adats, borka, morka, porka, borkila, mulko, mordo, golko, mortxokada, adalko, mustriko...

Tipula usain ederra dago orain bazterretan. Zenbaitentzako kirats samina



Ustaizeko tipula.

ESTER MONTERO

eta gogorra dena gozoa eta ahoko zerurako bide onena da. Tipulazalea bazara eta jasotzeko toki egokia baldin baduzu, ez ibili zalantza-malantzan eta ekarri sorta batzuk. Euskal Herrian baditugu sona handiko tipulak.

Zallako gorria mendebaldetik dator. Kolore ikusgarria du; gorria esaten zaio eta gorri-ubel edo more ederra erakusten du buruaren hosto-geruza bakoitzaren ertzean. Boladan dago, eta gero eta ospe handiagoa hartzen ari da nekazarien ahaleginari eta sukaldarien bultzadari esker.

Nafarroako ekialdetik datoz gainontzekoak. Huarteko tipula "babosa" adibidez Agoitz, Oroz-Betelu, Zangotza eta Irunberri aldean egiten da. Ikaragarri

handia izan daiteke 20 cm arterainokoa. Ustaizeko tipula ere sona handikoa da, eta Ustaizen bertan eta inguruko Nabaskoze almiradioan eta Zaraitzuko ibarrean lantzen da. Zapal-zapala da, bitxia eta aurkitzen oso zaila. Burgi aldean Salbaterra Ezkako "Salbaterrako tipula" eza-guna lantzen da. Ustaizekoaren antzekoa da, zapala baina gozoagoa. Biek ere arras gozoak izatearen sona dute; bere dasta gorena ahogozatzeko gordinik jan behar direla diote bertakoek, eta saltsa eta horrelakoetan nahastea, berriz, alferrik galtzea.

Zer egingo genuke tipularik gabe! Jan tipulatik, baina soilik tipula ez; gogoan izan: "Tipula jan, tipula lan". ●

DONIBANE LOHIZUNE

LANDARE-BARATZE BOTANIKOA, ITSASERTZEKO INGURUNE NATURALAREN ERAKUSLEIHO



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Itsasertzean egotea da Donibane Lohizuneko landare-baratze botanikoaren bereizgarrietako bat. “Bizi-baldintza bereziak dira itsaso ondokoak, eta bertako landareen berezitasunak erakustea da gure asmoetako bat”, azaldu du Jon Sodupe teknikariak. 2008an ireki zituen atek parkeak, elkarte batek bultzatuta. 2013. urtetik Udalak kudeatzen du landare-baratzea, baina helburuak bera izaten jarraitzen du: itsasertzeko ingurune naturalen dinamikak aurkeztea.

HAIZEARI ETA GATZARI AURRE EGIN BEHAR

Lorategi botanikoaz baino, landare-baratzeaz hitz egiten du Sodupek. “Lorategiak loreari baino ez dio egiten erreferentzia, eta pena ematen dit horrek, lorea landarearen zati bat delako, eta batzuk lorerik ere ez dute izaten”, dio. Bada, bi hektareako lur zatia hartzen du landare-baratzeak, eta mila landare espezie inguru topa daitezke bertan. Aipatu bezala, itsasoko espezieek garrantzi berezia dute. “Badira landare batzuk hemen bakarria aurkitzen direnak eta mehatxuan daudenak, itsasertzeko ingurune naturalak presio han-



dia dutelako”. Azken batean, gizakiaren jardueraren eta eraikuntzen ondorioz itsasertzeko ekosistemak murrizten ari dira pixkanaka.

Zeintzuk diren itsasertzeko landareen ezaugarriak? Nabarmenenak haizea eta gatza direla dio teknikariak. “Haize bortitza izaten da askotan itsasoaren parean, eta horregatik, landare edo zuhaitz handirik ez da egoten”. Gatz kantitatea ere landare gutxi jasan dezake, ura galarazten baitie eta horren aurka egiteko egokituak egon behar direlako. “Landareek ur erreserbak egiten dituzte hostoetan, eta morfologiari begira ere txikiak izaten dira, arrasta-

riak, lurretik hurbil egiten direnak eta ez handitasunean hedatzen direnak”, gehitzen du.

MILA LANDARE ESPEZIE, BI HEKTAREAKO BARATZEAN

Itsasertzekoaz gain, bestelako inguru-neak ere aurkituko dituzte bisitariak landare-baratze botanikoan. Girondako eta Landetako pinudi berezia, munduko bost kontinenteetako landareak biltzen dituen gunea, landare erabilgarriena –tar-tean sendabelarrak eta baratzeak–, eta beste zenbait bilduma. Landarediaz gain, itsasertzeko faunaren inguruko azalpenak ere ematen dizkiete bisitariak. “Landaredia ingurumena orokorki lantzeko abiapuntu bat da ingurumena, fauna eta floraren arteko loturak egiteko, polinizatzaileez hitz egiteko...”, dio Sodupek.

Udaberrian irekitzen dituzte atek, martxo bukaera aldean, eta urri bukaera arte egoten da zabalik landare-baratzea, udan egunero eta udatik kanpo asteburuetan eta asteazkenetan. Bisitez gain, animazio, tailer eta zikloak ere antolatzen dituzte, eta inguruko eskoletako ikasleen bisitak ere maiz-maiz izaten dituzte. ●



25 urte elikagai
ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAHARRAKO ERATZETAN PRODUZITAKO EKOLOGIKOEN KATZETIA

EUROPEAN UNION
European Union

25 ANOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAHARRAKO ERATZETAN PRODUZITAKO EKOLOGIKOEN KATZETIA

Ospatu gurekin
urteurrena!

Irailak 24-25-26
Zentzumenen parkea, Noain

'LIKE BEAUTY IN FLAMES' ERAKUSKETA

Errealitate areagotua eta errealitate konkretua Guggenheimen

Bilboko Guggenheim museoarekin duen harremanean sakonduz errealitate areagotuan ikusi beharreko hiru artelan garatu ditu Jenny Holzer artista estatubatuarra. Hitzen eta hitzak transmititzeko moduen inguruan eraiki du bere ibilbidea Holzerrek, hausnartzeko bideak iradokiz ikusleei. Hona hemen *Like beauty in flames* erakusketak Bilboko museoaren testuinguruan iradokitakoaren zati bat.

 PERU IPARRAGIRRE

1 970eko hamarkadaren amaieran, New Yorkeko (AEB) Manhattan barrutiko hormetan beltza zurian inprimatutako esaldi batzuk agertzen hasi ziren: “Dezentzia gauza erlatiboa da”, “Deskribapena metafora baino baliotsuagoa da”, “Antolakuntza eza anestesiaz mota bat da”, “Askatasuna luxua da, ez beharrezana”, “Zure motiboak ezkutatzea doilorkeria da”, “Gehiegi jatea kriminala da”, “Lasai dagoen gizona ez da nahitaez gizon hobea”, “Botere gehiegikeriak ez gaitu harritzen”, “Batzuetan hobe da ezer ez egitea burugabeki funtzionatzea baino”... Zerranda luzea da, aforismo eta eslogan gisako 300 esaldi inguruk osatzen baitute *Truisms* (1977-1979) obra.

Sinatu gabe agertu ziren lelook hiriko hormetan, jendearen arreta esaldien esanahian pausa zedin, eta ez egilearengan. Jenny Holzer (1950, Ohio, AEB) artistaren lan ezagunenetakoa da *Truisms*, eta ordutik hona hainbat artelanetan baliatu ditu orain dela berrogei urte bil-

dukako esaldietako batzuk. Garai hartan irakurri zituen filosofia eta literatura lanetatik kondentsatutako esaldiak dira gehienak, egia jakintzat jo daitezkeenak batzuk; hortik izenburua: Topikoak.


Esaldi guztiak izan daitezke, itxuraz, zuzenak, baten edo besteren begietara, bederen. Eta esaldien arteko kontraesanak, edo esaldi baten eta irakurtzen duenaren arteko kontraesanak, edo desberdintasun txikiak, kezkek, sortzen du hausnarketa. Izan ere hori da obraren helburuetako bat, Holzerren obran konstantea dena: eguneroko auszietan buruz hausnarraraztea, horretarako modu publikoan erakutsitako esaldiak eta poemak baliatuz.

HITZAREN FUNTZIOA

Idatzitako hitza, esaldia, bilakatu da Holzerren obraren ezaugarri erakusgarrietako bat. Hitza bera nola eman izan da berrikuntzarako baliatu duen bidea. Hasiaren hormetan jarritako kartelak izan baziren, informazio paneletara igaro zen

gero, eta euskarriekin esperimentatzen jarraitu du geroztik: brontzezko eta zilarrezko plaka ofizial-itxurakoak, kamisetak, bereziki sortutako led panelak, granitozko bankuak, kondoi-bilgarriak, proiektzio erraldoiak...

Helarazten den mezuaren eta helarazteko moduaren inguruko kontzientzia erabatekoa da Holzerren artelanetan. Bere testuez gain besterenak ere erabiltzen ditu egun, eta batez ere poemetan topatzen du lanerako materiala, baina baita testigantzetan eta dokumentu ofizialetan ere. Edozein kasutan, kontenplaziorako eta hausnarketarako abiapuntu aproposak dira hautatzen dituen testuak. Gutxitan ematen du instrukzio obraren inguruan, loturak egitea eta ondorioak ateratzea ikusleari utziz. Ez da zaila suertatzen granito gorritzko banku batean zizelkatutako hitzen aurrean pentsatzen jartzea, edo ziztuaren etengabe igarotzen ari diren esaldi misterioetsuei beha geratzea, gogoari alderrai ibiltzen utziz.



Bilboko Guggenheimen inoiz sartu denak ziur aski erreparatu dio Holzerrek museoarentzat 1997an propio sortutako *Installation for Bilbao* (Bilborako instalazioa) lanari: led zutabe eskutada bat, bi aldetatik testua daramatenak, argi gorritz emanda aurretik, urdinez atzetik.

Artistaren eta Bilboko museoaren arteko harremana estua izan da urteotan zehar, eta bere beste obra batzuk ere ikus daitezke bertan: grabatutako granitozko bankuak, serie eta garai desberdinetakoak, eta Siriako gerra bizi izandakoen testigantzak erakusten dituen lau aurpegiko led panel bat. Halaber, 2019an egin zuten museoan Holzerren obraren erakusketa esanguratsua: *Jenny Holzer. Zera deskribaezina* izenekoa. Erakusketaren lehen egunetarako prestatu zuen *Bilborako* obra. Nazioarteko eta Euskal Herriko 19 poetaren testuak proiektatu zituen museoaren kanpoko hormetan.

EDERTASUNA GARRETAN BEZALA

Guggenheimen aurten ikusgai jarri duten *Like beauty in flames* (Edertasuna garretan bezala) lana, ordea, berezia da besteen aldean. Izan ere, errealitate areagotuan soilik ikus daiteke, horretarako sortutako aplikazio baten bidez. Hiru piezak osatzen dute. Museoko

atrioan ikus daiteke lehena. Atrioko hiru solairuetako puntuetan kokatuta lortu daiteke sarbidea. Eraikinaren kanpoaldetik ikus daiteke bestea: museoaren hormetan poema batzuen proiektzioa simulatzen du piezak. Azken piezari dagokionez, munduko edozein lekutan egonik ere ausaz agertzen diren esaldiak ikus daitezke norberak nahi duen paisaiaren gainean.

Mugikorraren bitartekaritzak aldi berean posible egiten eta mugatzen du esperientzia

Atrioko piezari dagokionez, behin sarbidea eskuratuta atrioaren erdigunerantz begira jarri behar da telefonoa (edo aplikazioa instalatua duen gailua). Airean flotatzen agertzen da led panel artifizial bat, Holzerren obran ohikoak bilakatu diren panelen antzekoa, eta bertan irakur daitezke *Truisms* lanean berrogei urte atzera bildutako

esaldietako batzuk euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Forma ezinezkoak hartzen ditu panel artifizialak, atrioan gora eta behera biraka, kiribilduz, infinitua ere irudikatuz une batean.

Errealitate areagotuko led zutabe birtuala, ordea, ez da panel materialak bezalakoa. Lekuari lotuta dago, besteen modura, baina ez dago eskuetan hartzeko aukerarik, edo haren aurrean lasai esertzeko modurik. Mugitzen ari da, ihes egiten duela dirudi. Zaildu egiten du horrek testuari erreparatzea, esaldiaren hizkuntza eta hitz solteak justu-justu harrapa daitezke. Atrioaren solairuetan gora eta behera ibilita zer pentsatua ematen du. Jende andana dabil museoan, baina inor gutxi ari da obrari telefonoaren pantailatxotik begira. Hor dago *Like beauty in flames*, baina ez dago, eta hitz dantzari begira egonda ere ez dagoen zerbaiten traza hartzeko arriskua dago. Iradokitzailea da pieza, piezaren beraren izaerarengatik. Espazioa nola okupatzen duen artelanak, espaziorik okupatu gabe, sosegurako denborarik eman gabe. Garaikidea da bete-betean ikuslearen sentipena, eta mugikorraren bitartekaritzak ere berezi egiten du esperientzia, aldi berean posible egiten eta mugatzen, oztopatzen duelako hein batean.



Anna Swirszczynska poeta poloniarren poema batetik hartutako esaldi batek ematen dio izenburua obrari: “Museoa sutan dago. Lastoa bezala / gizonen belaunaldiek ohoratutako edertasuna / erretzen ari da. / Ez du preziorik / gizon baten gorputzak bezala. // Gizon bat, museoa zaintzeko baizik / ez dena egon munduan / garaiz iritsi ahal izan da. // Bizirik ateratzen bada / hurrengo belaunaldie / berretsiko die / nola edertasuna hiltzen ari zen edertasuna / garretan bezala”.

Beste bi piezak osatzen dute obra. Museoaren kanpoaldean kokatzen da bigarrena. 2019an egindako *Bilborako* proiektzioa oroitarazten du. Pantaila-txoari begira proiektzio horren simulazio modukoa ikus daiteke museoaren inguruko puntu desberdinetatik. Bertan irakur daiteke Swirszczynskaren poema, eta museoaz beraz ere gogoetatzeko aukera ematen du horrek. Teknikoki on-plexuagoa dirudi piezaren edukiak, ez da testua bakarrik, edo testuaren edukiontzi simple bat edozein atze-planorekin bateragarria dena. Kasu honetan testua eta atze-planoa (museoaren eraikina) batera doaz. Horregatik, Guggenheimen gaueko irudi bat agertzen zaio erabilitzaileari telefonoan, eta bertan testuak proiektatuta. Sentsazio bitxia da dena dela. Aurrekoaren modura, ez da espe-

rientzia eroso. Arratsaldeko eguzki batean eskua altxatuta mantendu behar da telefonoa begien aurrean eduki eta pantailatxoan desfilatzen duten hitzak ikusi ahal izateko.

Hirugarren pieza edozein lekutatik ikus daiteke. *Truisms* obrako esaldiak ausaz agertzen dira pantailan erabilitzailea dagoen lekuan egonda ere; edonora eraman daiteke artelana, nolabait, sakelakoa baizik ez da behar. Esaldia

“Titanioaren eta artelanen ostean prekarietate laborala gordetzen da”

aldatzeko botoia sakatu eta behin eta berriz agertzen da, beste batzuen artean, euskarazko esaldi bat: “Bere burua gainditzea da gizakiaren patua”. Norberak jartzen dion atze-planoaren arabera ironikoagoa edo zinikoagoa bilakatzen da. Badago beste bat ere, erdaraz agertzen dena: “Alienazioak eszentrikoak edo iraultzaileak sortzen ditu”.

ESALDI BERRIAK BILDUMARAKO

Badira hilabete batzuk museo ingurua milaka papertxok janzten dutela. Papertxo karratuak zurian beltz hainbat lelo idatzita daramatzatenak. “Titanioaren eta artelanen ostean prekarietate laborala gordetzen da”, “Guggenheim entzun, garbikuntza pim pam pum”, “Guggenheim prekaritate laboralaren museoa da”...

Ezin da aipatu Bilboko Guggenheim bertako garbitzaileen greba aipatu gabe. Idazterako unean, 80 egunetik gora daramatzate greban. Papertxoez gain protestan ari diren langileak ere biltzen dira museoaren inguruan. Ekintza ikusgarriak antolatzen dituzte astero jendearen arreta titanio distiratsutik aldendu eta haien egoeraz ohartarazteko.

Museoaren garbiketa azpikontratutako zerbitzua da eta 20 orduko lanaldiarengatik 600 euro inguruko soldatak dituzte langileek. Soldata arrakalaren aurka ari dira protestan, barrualdeko garbitzaileen sektorea feminizatua izanik sektore maskulinizatua den kale-garbitzaileekiko urtean 8.000 euroko arrakala dagoela salatzen dute. Enpresak entzungor egiten die oraingoz, baina jarraitzen dute kaleak aldarriz betetzen, Holzerren lanekin elkarrizketan emaitza berezia ematen dutenak. ●



LIBURUA

Dekolonizazio ariketa



NIRLIIT

EGILEA: JULIANA
LÉVEILLÉ-TRUDEL

ITZULTZAILEA: AIORA JAKA

TXALAPARTA

AMAIA ALVAREZ URIA

O hiko eztabaida bat da bizi izan ez duzun zapalkuntza bati buruz idatzi dezakezun, pribilegio kokapen batean egonda. Gizonak emakumeen esperientziari buruz hitz egin dezakete? Heterosexualek lesbiana eta gayei buruz? Zuriak arrazializatuei buruz? Alde batetik diskriminazioa eta bazterketa jasandakoen ahotsari entzutea da aberasgarriena, baina beste alde batetik egin beharreko lana ere bada bakoitzak bere botere kokapenari kritikoki begiratzea. Horretan dihardu idazleak.


Juliana Léveillé-Trudel da egilea eta Kanadako Artikoan bizi den inuit komunitateari buruz arituko zaigu. Azken udak han pasa ditu haurrentzako jarduerak antolatzen eta dinamizatzen eta bertan ikusi eta ikasitakoak aletuko dizkigu. Emakume gazte zuri frantses-hiztun kanadiar/quebekiar baten

esperientzia eta gogoetak partekatuko ditu boteregabetutako, sarraskitutako, eta ustiatutako komunitate baten berri emanez.

Azalean *Nirliit* izenburua topa dezakegu: 'antzara' inuktitut hizkuntzan, eta protagonistaren metafora, udan iparraldera doalako eta neguan hegoaldera. Azaleko irudiari dagokionez, 'bisutsa' dugu, haizeak barreiatzen duen elur txiki sarria, izan ere, oso eremu hotz eta gogorra da klimatikoki, basomugaren iparraldean bizi dira, tundran, argitasun itsugarria eta iluntasun hitsa txandakatzen diren lurraldean.

Protagonistak erail eta desagerrarazi duten bere laguna zen Evari eta Evaren semeari, Elijahri hitz egiten die. Bakarrizketon bidez herri baten erradiografia egiten digu, bere ikuspegitik, zerikusirik ez duena Conraden

Afrika orientalistarekin edota Fosterrren India exotikoarekin. Narratzai-leak dioenez: "Errudun sentitzen naiz neure herrialde aberatsagatik, neure familia batuagatik, neure heziketagatik. Suak itzaltzeko premia sentitzen dut, haurrak salbatzekoa, mundu ustel honetan zerbait egitekoa". Europarren Kanadako kolonizazioa agerian utziko digu, ehiztari nomadak nola bihurtu zituzten sedentario eta menpeko. Biolentzia handiko egunerokotasuna bizi dute, azken aldiko prentsan ere ageri dena: hildako emakume indigenei buruzko ikerketaren arabera 'arrazan oinarrituriko genozidio bat' gertatu da; eta erakundeek kudeatutako eta haien kultura baztertu eta diziplinatuzko xedea zuten barnetegi askotan ehunka haur indigenaren gorpuak aurkitzen ari dira. ●



MUSIKA

Begirada errusiarra Galiziatik



Musika Hamabostaldian Galiziako Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Dima Slobodeniuk. Bakarlaria: Elisabeth Leonskaja (pianoa). Easo Ahots Mistoen Abesbatza. Zuzendaria: Gorka Miranda. Egitarauak: Brahms, Rachmaninov eta Txaikovsky-ren lanak. Kursaal Auditorioan (Donostia), abuztuaren 19an eta 20an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ohi bezala, abuztuko bigarren hamabostaldia Musika Hamabostaldian bisitatzen gaituzten orkestra handien garaia da. Orkestra horietako lehena Galiziako Orkestra Sinfonikoa izan da, Espainiako Estatuko formaziorik interesgarrienetakoa. Gainera, Dima Slobodeniuk-ek 2013an zuzendaritza bere gain hartzeak orkestra honentzat ekarri duen bultzada pizgarri nahikoa izan zen abuztuaren 19an eta 20an Kursaal Auditorioan bildu zen publiko guztiarentzat.

Horrez guztiaz gain, bakarleri bikainen presentziak eta errusiar karga handiko programa baten aurkezpenak, bi hitzordu hauek, Musika Hamabostaldiko edizio honetako bi une nagusi bihurtu zituen.

Elisabeth Leonskaja piano-jotzailea-

ren aktuazioa izan zen hilaren 19ko plater nagusia. Pianista mitikoa da, Errusiako eskola onenaren ordezkaria, eta 75 urterekin Brahms-en *Pianorako 2. kontzertua si bemol maiorrean, op. 83* interpretatzeko behar den indarra eta sasoia erakutsi zituen. Bakarleriak kontzertuko pasarte guztiak mimatu zituen. Agian, kasu honetan, orkestraren laguntza izan zen alderdi ahulena, ez espero genuen bezain malguta eta kantabilea.

Hala ere, Dima Slobodeniuk zuzendari errusiarren jenialtasuna Rachmaninov-en *1. Sinfonia re minorrean, op. 13* obran atera zen. Konpositorearen gaztaroko obra da, errusiar tradizio sinfonikoaren ildoari jarraitzen diona, eta Slobodeniuk-ek distira eta dotorezia ateratzen jakin zuen.

Hilaren 20an, Brahms-en bi harribitxi entzun genituen, non protagonismoa Easo Ahots Mistoek Abesbatzak hartu zuen. Bai *Nänie, op. 82* lanak, Schiller-en olerki batean oinarritua, bai *Patuaren abestia 54* obrak, Hölderlin-en lan batean oinarritua, abesbatzaren interpretazio afinatu eta dotorea izan zuten, baina bezperan piano eta orkestrarako kontzertuan gertatu zen bezala, orkestraren zatia nahiko laua eta hotza geratu zen.

Hala ere, publikoaren gozamenerako, Txaikovsky-ren *5. Sinfonia re minorrean, op. 64* obrarekin amaitu zen saioa. Orkestra pletoriko azaldu zen, metal ederrekin. Zuzendari adimentsua topatu genuen, ohi baino bertsio ez hain solemnea egin zuena, baina ñabarduren aldetik oso interesgarria. ●



Arriskuarekiko maitasuna

📍 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

1909an argitaratu zuen Filippo Tommaso Marinetti artista italiarrak *Manifestu Futurista*. Testu hartan “arriskuarekiko maitasuna, energiaren eta ausarkeriaren ohitura [...] Ausardia, adorea eta errebolta gure poesiaren funtsezko elementuak” zi-rela aldarrikatu zuen. Argitaratu zen garaian baino, urte batzuk geroago izan zuen arrakasta testuak, 1920ko hamarkadan, Gerra Handia eta munduko gripe pandemia iraganeko kontuak zirenean. Gizartean, bereziki burgesiako kideen artean, bizi pulsioak gogor jo zuen eta hedonismoarekiko jarrera kamikazea hedatu zen. Kontsumo gizarte kapitalista izan zuten erregai eta gizarte tradizionalaren konbentzioak jomuga. Espiritu eta garai hori ditu aztergai *Urte eroak. 1920ko hamarkada* erakusketak.

Izenburu topikoa du eta garai horri ezarri zaizkion topiko -batzuetatik-

ihes egiten duen arren, ohikoak diren erreferenteak aipatzen ditu. Topikoak ere historia errepikatu egiten dela dio eta hala da erakusketan. 1920ko hamarkada mende honetakoarekin parekatzen da behin baino gehiagotan eta antzekotasunak agerikoak dira. Hala ere, diskurtso hegemonikoan zirrikitu batzuk sortu eta garai hartako bi aldeak erakusten ditu. Zazpi multzotan antolatutako 300 artelanetik gora erakusten dira. Zazpi ikuspuntu garai baten argazkia osatzeko: teknologia, aisia, arkitektura, moda, sexualitatea, gorputza eta komunikabideak. Askotariko ikuspuntuak oso modu erakargarrian aurkeztuta. Erakusketa ikusi ondoren abiaduren sentsazioa geratzen da, arriskuarekiko maitasuna zuen gizarte burgesaren irudikapen bikaina egin denaren seinale. Bizitza erre nahi zuten gizaki haiek. Heriotza, miseria

URTE EROAK. 1920KO HAMARKADA

NOIZ: maiatzak 7 / irailak 19

NON: Bilboko Guggenheim museoa

eta hondamendiak hurbiletik bizi izan zituzten eta bazekiten, nolabait, iluntasun hura guztia itzul zitekeela.

Manifestu Futuristan aurrera egin ahala ideia ilunekin egingo dugu topo: “Gerra –munduko higiene bakarra–, militarismoa, abertzaletasuna [...] Edozein eratako museo, liburutegi eta akademiak hautsi nahi ditugu, eta moralismo, feminismo eta zitalkeria oportunistak edo utilitarista guztien aurka borrokatu”. Modu berean, *urte eroek* ere beraien alde iluna zuten. Gerraren bortizkeria eta kapitalismoaren gehiegikeriak latente zeuden bizipozaren azpian. Kontsumoaren azal meheak ezin zituen orbainak ezkutatu. Indarkeria horrek lekua du erakusketan. Leku txikia, aukeran, garrantzia agerikoa baita, are gehiago pribilegiatu gutxi batzuen festaren biharamunak ekarri zituen garai ilunen jakitun garelako. ●



Bertso-zopa

Osatu Maialen Lujanbiok 2019an Donostian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*. Gaia: Gaztetan denok izaten ditugu ametsak. Batzuek hurbilagokoak beste batzuek urrunagokoak. Zer ikasi duzu denbora horretan? Berrogei urteren bueltan zaudela, amets horietatik zer erakutsi dizu bizitzak?

Buruak mila neurona eta bakoitzak _____ bana du gizarte honek gazte batentzat mila gozo, mila amo ta hainbat hesi saltatzekoak hainbat arrisku ta _____. Ni _____ hala egin naiz eta noski ez dut _____ baina ez nintzen akaso izango hala amestu izan banu. (bis)

Gu bertsolari zaharragoek hezi izandu gaituzte ez dira Nobel, _____ dira edota kide _____. Ai bapateko hitz bilaketak zenbat min ta _____! Baina bidean ikasten bada ikasi pausoen truke beti _____ prest egon eta badakizunik ez uste. (bis)

Ze sorkuntza da _____ bat amaierarik ez duna beti hobetu ta beti findu daiteke zure _____ ukazioa legetzat hartuz hor dabil gure _____ zeren helburu bat bazeneuka han ortzemugan urruna hura ukitzera heltzen bazara bilakatzen da _____. (bis)



DANI BLANCO

Word search grid with letters: A B P R E P O L O A S E T X A, A U M M T R E L O A B E T E I, I R A G A Y U I K A S T E K O, L U N A N G U L N B E M A S M, U H A R A P R U R T L K E A K, S A A U T J D R J A I Z K Z D, T U U N X R E R M E K A U E A, R S J A A K T U B M A S A T M, E T R J P E A N I A L B N F U, X E P J E I H A L M G X U B L, U P O I L T L H A U X M C R M, K A J I D L Z U K N A R E A S, U A C X U O X K E Y Z G B T G, X R A B N J N D T R V D E K K, A N I Y E P H Q A Z H M H E A, T O P B E R T S O L A R I N U

Sudokua

ERRAZA


9x9 Sudoku grid with numbers: 6, 5, 9, 7, 3; 8, 7, 3, 2; 3, 5; 2, 3, 7, 9; 3, 1, 8; 1, 9, 8, 6; 9, 8; 7, 6, 2, 3; 3, 6, 1, 2, 9

ZAILA

9x9 Sudoku grid with numbers: 4, 2; 5, 7, 6, 4; 3, 6, 9, 7; 6, 1, 2, 3; 7, 5, 3; 3, 9, 4, 5; 2, 9

Gurutzegrama

9x9 grid with red squares at (1,5), (2,8), (3,4), (4,7), (5,3), (6,6), (7,2), (8,5)



ASIER SARASUA

aditzaren infinitiboa. / Euskal mitologiako haitzuloa, Baigorriin.

GOITIK BEHERA:

- 1. Erosta, auhena. 2. Argazkiko mendizerra. 3. Da, niri. / Paper tamaina. 4. Azken eta hirugarren bokalak. / Xii. 5. Zurrutada. 6. Usoaren okela. / Seigarren musika nota. 7. ...Vicious, punk. / Zikin, lohi. 8. Beldurrez. 9. Aukera, zerbait egiteko ahala.

EZKER-ESKUIIN:

- 1. Daukazu. / Iritzi, aburu. 2. Jaitsi. 3. Ibaietako pasabide. / Elementu kimikoa. 4. Akatsak, narriokak. / Gorotza. 5. Osmioaren sinbolo kimikoa. / Belarra ebakitzeko lanabesa. 6. Elementu kimiko. / Gehitzeko partikula. 7. Italiako biztanle. 8. Anunatu

EBAZPENAK

Buruak mila neurona eta bakoitzak ametsak bana du gizarte honek gazte batentzat mila gozo, mila amo ta hainbat hesi saltatzekoak hainbat arrisku ta mamu. Ni bertsolari hala egin naiz eta noski ez dut damu/baina ez nintzen akaso izango/hala amestu izan banu. (bis) Gu bertsolari zaharragoek hezi izandu gaituzte/ez dira Nobel, txapeidun dira/edota kide lustre./Ai bapateko hitz bilaketak/zenbat min ta buruhauste!/Baina bidean ikasten bada/ikasi pausoen truke/beti ikasteko prest egon eta/badakizunik ez uste. (bis) Ze sorkuntza da bilaketa bat/amaierarik ez duna/beti hobetu ta beti findu/daitake zure jarduna/ukazioa legetzat hartuz/hor dabil gure garuna/zeren helburu bat bazeneuka/han ortzemugan urruna/hura ukitzera heltzen bazara/bilakatzen da urruna. (bis)

9x9 grid with numbers: 2, 7, 5, 3, 1, 4, 8, 9, 6; 1, 3, 9, 8, 2, 6, 4, 7, 5; 4, 6, 8, 5, 9, 7, 2, 1, 3; 7, 8, 4, 6, 5, 3, 1, 2, 9; 9, 5, 6, 1, 7, 2, 3, 8, 4; 3, 1, 2, 9, 4, 8, 5, 6, 7; 8, 5, 3, 4, 6, 3, 7, 5, 1; 5, 6, 7, 2, 3, 1, 6, 4, 8; 6, 4, 1, 7, 8, 5, 9, 3, 2

ZAILA

9x9 grid with numbers: 3, 6, 1, 8, 7, 5, 2, 4, 9; 8, 7, 4, 6, 9, 2, 3, 5, 1; 2, 5, 9, 3, 4, 1, 7, 8, 6; 5, 1, 7, 9, 8, 6, 4, 3, 2; 4, 8, 2, 5, 1, 4, 8, 6, 7; 7, 3, 2, 4, 6, 9, 5, 1, 8; 1, 9, 8, 7, 5, 3, 6, 2, 4; 6, 4, 5, 1, 2, 8, 9, 7, 3

ERRAZA

Word search grid with letters: A B P R E P O L O A S E T X A, A U M M T R E L O A B E T E I, I R A G A Y U I K A S T E K O, L U N A N G U L N B E M A S M, U H A R A P R U R T L K E A K, S A A U T J D R J A I Z K Z D, T U U N X R E R M E K A U E A, R S J A A K T U B M A S A T M, E T R J P E A N I A L B N F U, X E P J E I H A L M G X U B L, U P O I L T L H A U X M C R M, K A J I D L Z U K N A R E A S, U A C X U O X K E Y Z G B T G, X R A B N J N D T R V D E K K, A N I Y E P H Q A Z H M H E A, T O P B E R T S O L A R I N U

- 1. DUZU USTE, 2. ERATSI, 3. OS, IGITAL, 4. TATXAK, KK, 5. IB, RODO, 6. RADIO, ER, 7. TALIA, 8. ASFA, ANZA. 1. DORTOKA, 2. URBASA, 3. ZAIT, DIE, 4. UI, XITTA, 5. TRAGO, 6. USOKI, L, 7. SID, TEU, 8. IKARAZ, 9. EGOKIERA.

Julen Iztueta

GORPUTZ HAUTSIK ETA
BERROSATUAK BILDUZ



ARTEAREN HIZKUNTZAK

"*Ispilu hutsak* bilduman irudia nagusi den arren testua ere beti izan da garrantzitsua nire sormen prozesuan. Testuak ideiak finkatzen laguntzen dit. Beste erritmo batean pentsatzen dut idaztearekoan eta ikuspegi berri bat ematen diot egindakoari. Bideoarekin eta audioarekin ere lanean ari naiz azkenaldian. Prozesua aberastea beti da interesgarria eta guztiz kontrolatzen ez dituzun "hizkuntzak" lantzeak prozesu guztia kontrolpean ez izatea ahalbidetzen du. Kasualitatea eragiten edo zoria elikatzen ere saiaturen naiz, handik ustekabeko emaitzak sor daitezten".

"Artea maiuskulekin, artearen merkatua eta horrelakoak ez zaizkit ardura"

Hanburgoko kaleetako hormetan daude ikusgai Julen Iztueta-aren (Anoeta, Gipuzkoa, 1987) collageak. Azken urte eta erdian handik eta hemendik hartutako irudiak moztuz osatutako collageek osatzen dute *Ispilu hutsak* bilduma. Gorputz hustuak, zatituak eta berrosatuak dira nagusi, identitateari buruzko hausnarketan. Vilanova i la Geltrú-n (Bartzelona) bizi da Iztueta egun, jardun artistikoarekin diseinatzaile grafiko eta unibertsitateko irakasle lanak uztartuz.

PERU IPARRAGIRRE

Argi zenuen arte ederrak ikasi nahi zenituela?

Batxilergo artistikoaren ondoren nahiko argi nuen arte ederrak ikasiko nituela Bilbon. Egia da batxilergo artistikoa aukeratzean irakasleek nire gurasoekin hitz egin nahi izan zutela orokorrean ikasle ona izanda agian ez zelako aukera zentzudunena. Asko eskertzen dut gurasoek nigan, hartutako erabakiarekiko, izan duten konfiantza.

Nola ikusten duzu Bartzelonatik Euskal Herriko arte mundua?

Arte ederrak Bartzelonan amaitu nuen, beka bati esker. Ondoren *Ikus-kultura eta hezkuntza* izeneko master bat egin nuen bertan eta ordu ezkerro dudan lagun taldearekin askotan joaten gara erakusketetara eta abar, baina Euskal Herriko arte testuinguruaz nahiko deskonektatua nabil. Orokorrean, garai zailak dira kulturarentzat, baina aldi berean sortzaileak eta sormena orokorrean inoiz baina funtsezkoagoak dira gizarte honetan. ARTEA maiuskulekin, artearen merkatua eta horrelakoak ez zaizkit ardura.


Beste sortzaileekin batera proiektu desberdinetan parte hartzea atsegin dut, eta sormena orokorrean edozein motatako egitasmotan lantzea.

Balio du collageak gaur egungo munduaz aritzeko?

Collageak edozertaz hitz egiteko balio dezakeela esango nuke. Azkenean, beste edozein teknika bezala, sortzeko modu bat dat. Zer kontatu nahi den edo zertaz hitz egin nahi den sortzaileak erabakitzen du. Aldi berean sortzailearen asmoa ez dago ikuslearen iritzi edo ikuspegiaren gainetik, nire ustez. Ikusleek irudi horien aitzakiarekin beste edozein elkarrizketa edo pentsamendu izatea ere oso baliotsua da.

Zer erakusten dute *ispilu hutsak*?

Nire lehen bakarkako erakusketa honen parte diren 50 collage hauetan gatazkan dauden gorputzak ikus daitezke. Identitatearen inguruan hausnartzen ari diren pertsonaiak ageri dira. Izaki hautsi eta zatikatu hauetan murgiltzen bagara gorputz atal desberdinak topa ditzakegu. Sarritan gorputz hustu bakoitzean



JEWGENI ROPPEL

"Sortzailearen asmoa ez dago ikuslearen iritzi edo ikuspegiaren gainetik, nire ustez. Ikusleek irudi horien aitzakiarekin beste edozein elkarrizketa edo pentsamendu izatea ere oso baliotsua da".

pertsona bat baino gehiagoren fragmentuak koka daitezke.

Zein hausnarketa dago proiektuaren oinarrian?

Arte Ederretako karreraren zehar egin-dako lehen proiektuetatik, nire identitatearen eraikuntzari buruzko gogoeta landu izan dut. Argazkigintzaren bitartez, pinturaren bitartez... Prozesu horretan, genero ikuspegiari eta maskulinitatei buruzko irakurketak funtsezkoak izan dira.

Nola eraman identitateen eta maskulinitateen inguruko diskurtsoak irudira?

Nire lanei begirada orokor bat emanaz gero nabari da lehen begirada batean gizonezko bezala ulertu daitezkeen gorputzekin lan egiten dudala. Nire esperientzia pertsonalagatik gehiago konektatzen dut erretratu hauekin. Abiapuntua hau izanda eta beti gorputzekiko begirada anitz bat mantendu nahian hauek zatikatu, nahastu, itsatsi... egiten ditut. Ez dut helburu finko batekin sortzen baina badakit gai honetikiko dudan interesak sormena posi-

tiboki kutsatzen duela. Nire lanak zer kontaktzen duen galdetzen didatenean hori datorkit burura.

Hasieratik zenekien bilduma bat izango zela?

Bilduma hau azken urte eta erdi honetan egindako collagez osatua dago, baina denbora honetan irudi askoz gehiago sortu ditut. Prozesuan murgilduta helburu finkorik gabe sortzen joan naiz, egite soil hori disfrutatuz. Erakusketa hau egitea proposatu zidatenean bilduma bat egiteko aukera ezin hobea zela iruditu zitzaidan eta benetan oso prozesu interesgarria izan da. Geldiarazi egin nau, egiten aritu naizen guztia aztertu ahal izan dut erritmo geldoago batean.

Nolatan suertatu zaizu Hanburgoko aukera?

Tarte honetan nire sorkuntzak Instagramen partekatu ditut eta argazkilaria eta bestelako sortzaile asko ezagutzeko aukera eman dit horrek. Hanburgoko Galerie 21eko parte den argazkilaria batekin hitz egiten hasi nintzen horrela. Hainbat proiektu elkarrekin egin ondoren Art Off Hamburg ekitaldian erakus-

keta bat egiteko proposamena luzatu zidan.

Bertan egon zara?

Lau egunez Hanburgon egoteko aukera izan dut eta lanak bertako kaleetan zehar ikusi ahal izan ditut. Oso interesgarria izan da estudioan egindako irudiak paisaia urbano batean ikustea, bestelako irudiz, kartekez eta jendez inguratuta. Egun hauetan zehar nola aldatzen joan diren ere dokumentatzen aritu naiz. Beste hainbat poster itsasteko aukera ere eman zidaten eta zeregin honetan genbiltzala galdetzera zetozen hainbatekin hitz egiteko aukera izan nuen, bidaiako momentu aberatsgarrietako bat izan zen.

Zer duzu orain esku artean? Zeintzuk dira zure asmoak aurrera begira?

Hanburgotik informazio askorekin eta sortzen jarraitzeko gogo handiarekin itzuli naiz. Galerie 21en egonaldi bat egiteko aukera eman didate eta planifikatzen hasi beharra daukat. Horrez gain, nire lana Euskal Herrira gerturatzeko aukera edukitzea asko gustatuko litzaidake. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO

CALLE DEL
GENERAL MILLÁN ASTRAY ZENECA

BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Greta Thunberg: "Eredugarria da Donostiako estropaden kartelgilearen lana, klima larrialdiaz ohartarazteagatik"

Superekintzaile ezagunaren hitzetan, Donostiako Udala erreferentzia da mugimendu ekologistako kideentzat eta, bereziki, mugimendu ekologistaren kartelak diseinatzen dituzten sortzaileentzat. "Nire mihaspen osoa ordenagailu aurrean eseri eta tamainako protesta-artelana egin duen burkidearentzat", esan du Thunberg, Iraultza Txikien Akanpadatik bueltan trizikloan. "Traineruak Konstituzio plazaren erdian. Demasa!". Kartelaren egileak azaldu digu Thunbergen hitzek apur bat harritu dutela, baina espero zuela kartela gustatzea klima aldaketa gainean dugula ziur den jende txakurrari: "Zenbat ordu sartuko nituen Paint-arekin... nire lehengusu Gascok ere ez daki! Donostiaren onena jasotzen saiatu naiz, turistei eta estropadak zainetan daramatzaten herritarrei keinu eginez, pintxoak ez nekien non jarri, baina traineru baino yate gehiago sartzea lortu dut. Hain justu, yate eta traineruei arretaz begiratzen badiezue



Estropaden kartel ofiziala. Ez du ematen, baina bai, hala da.

denbora batez, mugitzen ari direla irudituko zaizue. Egin proba, merezi du".

Kabulgo Buru Batzarra



JAUNGOIKUA ETA LEGE SHARIA

@MC.ETO | INSTAGRAM

SAREAN ARRANTZATUA

Random euskaldun berri: "Ni hori egin dut"

Zu kanpotik: Zu barnetik:



@XALBATOR | INSTAGRAM



@ARTEFAKTE | FACEBOOK

Bizitza modernoa



JOSEBA GABILONDO | FACEBOOK

2. argitaraldia



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHuko irakaslea

MARRAZKIAK:

Eñaut Aiertzagüena

15€

Bidalketa gastuak: 4 €

Eskaerak: azoka.argia.eus / 943 37 15 45

 ARGIA

19,5€



Kamiseta berria!

%100 kotoi organikoa

24€



8€

15€



Artikulu hauek erositako erosten ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moya Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45 azoka.argia.eus

 ARGIA Azoka